



Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Balio etikoak

Gida didaktikoa

DBH 1

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

Edukia

SARRERA	3
HELBURUAK	7
EDUKIAK.....	13
EDUKI MULTZOAK.....	13
GAI NAGUSIAK	17
NOIZ ETA NOLA ERABILI.....	29
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK	40
1. <i>Gaia:</i> Ezkontzean lantegitik bota. Historia.....	40
2. <i>Gaia:</i> Emakumeen “soldaduska” frankismoan. Historia.	46
3. <i>Gaia:</i> Nokaren galera Oñatin. Historia.....	53
4. <i>Gaia:</i> Emakumeak eta surfa. Gaur egun.	61
5. <i>Gaia:</i> Idazlea emakumea denean. Gaur egun.....	69
6. <i>Gaia:</i> Emakumeak bertsoen plazan. Gaur egun.	78
7. <i>Gaia:</i> Matxismoa ezkutuan? Adibide batzuk. Gaur egun.....	85
8. <i>Gaia:</i> Ohiturak aldatzen: Eskoriatzako kasua. Gaur egun.....	94
9. <i>Gaia:</i> LGTBIQ+ kolektiboa	106
ESPAZIOEN ANTOLAKETA	116
DENBORALIZAZIOA	117
MATERIALAREN EGILEAK.....	119
BIBLIOGRAFIA	121

SARRERA

Gure [ikasmaterialak](#) Euskal Herriko Ahotsak www.ahotsak.eus proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea da, ahozko jardunaren bitartez. Eta, bidez batez, belaunaldien arteko hurbilketa egitea, lehenaldia eta oraina lotuz.

“Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua 2015ean sortu zen, EIMA 2.0. egitasmoari esker. DBHko **Herritartasunerako Hezkuntza** irakasgaiarako egin genituen lehen [proposamen pedagogikoak](#):



Ondoren, **Euskara eta Literatura** ikasgaiari heldu genion, eta 2016tik 2019ra bitartean DBHko maila guztietarako [materiala](#) prestatu genuen:



Balio etikoak - DBH 1

Euskara eta Literatura ikasgaiarekin jarraitu genuen, Batxilergoko 1. eta 2. mailekin:



Orain arteko lanketa guztiak <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean daude erabilgarri, euren gida didaktikoekin (proiektuetan EIMA 2.0. aukeratuta).

Balio etikoak ikasgaia

Orain prestatu duguna **Balio etikoak** ikasgaiarako ikasmateriala da, **DBHko 1. mailarako**. Hasierako lan-lerrora bueltatu gara, beraz. Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaiarako prestatu genuen ikasmaterialarekin bateragarria da hau: osatu egiten du. Hori bai, **Balio etikoak** irakasgai berriari egokitutako ikasmateriala da, LOMCE legeak ekarritako aldaketak aintzat hartzen dituena.

9 proposamen pedagogiko prestatu ditugu. Emakumeen eskubideak, feminismoaren historia eta LGTBIQ+ kolektiboa dira gai nagusiak, eta bi begirada jorratu ditugu: atzera begirakoa (historikoa) eta gaur egungo egoera.

Zer du berezitik gure ikasmaterialak?

Ahokotasuna dauka abiapuntu gisa, edukiak jorratzeko garaian. Curriculumean ahokotasunari garrantzi handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen da ikastetxeetan. Ahokotasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu.

Balio etikoak - DBH 1

Ahozkotasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita.

Herriaren jakinduria, **jakintza kolektiboa**. Hori da beste ezaugarrietako bat. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen herritarren ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean. Adituena zein herritar xeheena. Gazteena zein adinekoena. Hezur-haragizko pertsonak kontatutakoak dira proposamenen ardatza, eta horrek gertutasuna ematen du. Gainera, ikasmaterialak Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko balio du, euskal mundu ikuskeraren erakusgarri den heinean.

Badira gai batzuk lehentasunezkoak eta unibertsalak direnak. Betikoak eta betiko direnak. Balioak, errespetua, elkarbizitza, berdintasuna... horiek etxean erakusten dira neurri handi batean; bai lehen eta bai orain. Hori bai, ikastetxeetan ere **balio etikoak** gero eta indar handiagoa dute. Izan ere, ezinbestekoa da eskolak ikaslea eguneroko bizitzarako prestatzen laguntzea. Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen. Baina azken belaunaldietan ez, bizimodua goitik behera aldatu baita: teknologia berrien aroan murgilduta bizi gara. Guk ere **transmisioa** egiteko modu berriak aurkitu behar izan ditugu, **teknologia berriak** erabilita eta modu erakargarrian.

Hala, batetik, gure aurrekoen bizipenak, adineko jendearenak, ezagutzera ematen ditugu. Izan ere, gizartearen barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera... gizartearen bilakaeraren ondorio dira; nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo gazteen ahotsa ere aintzat hartzea, orain haiek bihurtu behar dutelako lemazain, eta ikasleak gazteekin gehiago identifikatzen direlako. **Belaunaldien arteko zubi-lana** egiten dugu. Soka beraren katebegiak gara denok.

Ikasmaterial osagarri digitala da gurea, Curriculuma aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, eta ez beste nonbaitetik hartua eta egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen da eta Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber,

Balio etikoak - DBH 1

erabiltzeko erraza da, intuitiboa, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin daitekeelako: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Diseinu erakargarria du. Eta berdintasunari buruzko lanketak egiteko baliagarria gertatzeaz gainera, berdintasuna aintzat hartzen du bai gaiak aukeratzean, bai proposamen pedagogikoetan.



**Emakumeak
bertsotan**



**Nokaren galera
Oñatin**



Trans izatea



**LGTBIQ+
kolektiboa**



**Emakume
idazleak**



**Matxismoa
ezkutuan?**

HELBURUAK

Gure ikasmateriala DBHko 1. mailako irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta **Balio etikoak** irakasgaiarekin dago lotuta.

EIMA 2.0. deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmaterial digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material osagarria da.
 - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
 - Aniztasunari erantzuten dio.

Proiektu honen helburuetako bat ahozkoitasuna lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota Ahotsak.eus proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola curriculumetan (175/2007, 23/2009 eta 236/2015 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta baita ere ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena:

“Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko; gainera, ezinbestekoak dira trebetasun kognitibo-linguistikoak garatzeko eta arlo guztietako ezagutzak eraikitzen laguntzen dute. Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, beharrezkoa

Balio etikoak - DBH 1

da eskolak euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu” (HEZIBERRI 2020: 236/2015 Dekretua).

Ahokotasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoen eta gazteen testigantzek. Batetik, hizkera dago: euskararen aberastasuna. Bestetik, kontatzen dutena: historia, iritziak eta jakintzak. Haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak euren kabuz ondorio batzuetara hel daitezen, talde-lanaren laguntzaz. Bide batez, nagusien hitzei balioa emateko, denen iritziak entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balio du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarriketaren bidez egin dezaten balio dute gure bideoek eta proposatuko ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balio du.

Legezko Xedapenen testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean (HEZIBERRI 2020: 236/2015ko Dekretua) jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai oinarrizko zehar-kompetentziekin eta baita diziplina barneko kompetentziekin ere.

Oinarrizko zehar-kompetentziei dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak betetzen ditu (236/2015ko Dekretua): *Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia; Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia; Elkarbizitzarako kompetentzia; Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia; Norbera izaten ikasteko kompetentzia*. Helburu horietako azpiatal guztiak izan ditugu kontuan ikasmaterial honetako gaiak eta jarduerak aukeratzeko orduan, eta bereziki hauek:

1-Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

Balio etikoak - DBH 1

- *Hitzeko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea.*
- *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguruan erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.*

2-Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. *Ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, ikasitakoa beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzeko eta norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.*

3-Elkarbizitzarako kompetentzia. *Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekotasun-irizpideekin parte hartzea, guztien eskubide eta betebeharrak errespetatuz.*

- *Norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteenak entzun eta kontuan hartzea.*
- *Taldean ikastea eta lan egitea, elkarlanean eta aniztasuna balioetsiz.*
- *Printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren arauak betetzea.*
- *Gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.*

4-Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia, *ideiak ekintza bihur daitezen.*

5-Norbera izaten ikasteko kompetentzia, *pertsonaren autorrealizatorako, etengabeko hobekuntzaren bidez.*

- *Portaera soziala eta morala autorregulatzea.*
- *Nork bere buruaren gaineko kontzeptu eta estimu on eta errealistak edukitzea.*
- *Nork bere erabakiak modu autonomoan hartzea, betebeharez ere jabetuz.*

Balio etikoak - DBH 1

Helburu didaktiko zehatzagoei begira, esan DBHn «Balio etikoak» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu (236/2015 dekretua). Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lor daitezkeela uste dugu.

Etapako helburuak honakoak lirateke:

- 1.** Giza izaera onartzea dimentsio indibidualean zein sozialean, eta norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, dimentsio morala barne, norbanakoen arteko desberdintasunak eta pribatutasuna errespetatzeko, eta bere buruaren eta ikaskideen ikuspegi zuzena edukitzeko.
- 2.** Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak erabiltzea, eta sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, berdinen arteko jardueretan, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.
- 3.** Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsalak aitortutako eskubideak zein diren jakitea, bere egitea eta aintzat hartzea; unibertsalak, zatiezinak eta elkarri lotuak direla ikusi eta onartzea, eta irizpide moduan hartzea gizarte-gertaerei eta egoerei zein norbanakoen eta taldeen jarrerari buruzko iritziak emateko.
- 4.** Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna babestea eta bidegabekeria eta diskriminazio oro arbuiatzea, batez ere generoarekin eta hark dakarren indarkeriarekin lotutakoak, bai eta etnia, sinesmenak, desberdintasun pertsonalak eta sozialak, orientazio afektibo-sexuala oinarri dutenak eta beste edozein motatakoak ere.

Balio etikoak - DBH 1

5. Bizitza demokratikoa, politikan eta gizartean parte hartzea eta beste antolaketa modu batzuetan parte hartzea (lankidetzak, elkarteak, boluntarioak...) zer den jakitea eta aintzat hartzea, erreferentzia gaur egungo EAE eta haren egoera historikoa izanda, gure gizarte-ongizateko sistema mantendu eta hobetzeko ditugun betebeharrak gure gain hartuz, bidezko garapen jasangarriarekin konprometitutako bizi-proiektu bat eraikitzeke bidean.
6. Giza eskubideak urratzea dakarten egoerak identifikatu eta aztertzea, direla indarkeria estrukturalak eragindakoak (gerrak, pobrezia, muturreko desberdintasunak...), dela terrorismoak eragindakoak, genero-indarkeriak eragindakoak, berdinen arteko indarkeriak eragindakoak... Bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna helburu duten ekintzak aintzat hartzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko.
7. Teoria etikoen berri izan eta haiek aztertzea, eta jakitea zein diren gaur egungo gizarte-gatazka eta gatazka moral nagusiak, jarrera kritikoa izateko komunikabideen bidez, Internet bidez eta beste gizarte-erakunde batzuen bidez (eskola, esaterako) helarazten diren modelo eta estereotipoekiko.
8. Nork bere diskurtso etikoa eratzea, hari dagokion irizpide moralarekin, eta etikaren eta moralaren berezko ezaugarriak eta elkarren arteko harremanak aztertzea, bizitzako egoerei inpartzialtasunez eta ikuspegi konstruktiboz heltzeko.
9. Justiziaren eta politikaren artean zer lotura dagoen jakitea, elkarren mendekoak direla aztertzea eta batak besteari informazioa nola ematen dioten jakitea, justizia eta bizitza demokratikoko funtsezko elementutzat aldarrikatzen duen herritar izan gaitezen sustatzeko.

Balio etikoak - DBH 1

10. Etika, zuzenbidea eta giza eskubideak lotuta daudela jabetzea, eta balio etikoek zer zeregin duten eta historian zehar zuzenbidean eta giza eskubideetan nola gauzatzen diren aztertzea, gure gizartean balio horiek zein mailatan betetzen diren ikusteko.

11. Etika eta zientzia eta teknologia lotuta daudela ohartzea, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak sortutako egoera gatazkatsuak planteatuz eta kritika eginez, haiei buruzko iritzi moralak egiteko aukera ematen duten irizpide etikoak proposatzeko.

EDUKIAK

Balio etikoak irakasgaien DBHko 1. mailarako zehaztutako edukiekin dator bat gure ikasmateriala, bereziki 3. eduki multzoarekin.

EDUKI MULTZOAK

1. eduki multzoa: eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziaztea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.)
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.

Balio etikoak - DBH 1

- Plangintza eta egindako lanak ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. eduki multzoa: pertsonaren duintasuna

- Zer esan nahi du pertsona izateak?
- Gizakiaren aldagai soziokulturalak.
- Bilakaera psikosozialaren etapak eta oinarritzko ezaugarriak. Gazteak informazioaren aroan.
- Autonomia eta heteronomia.
- Nortasuna. Bizi-proiektu pertsonala.
- Ohiturak sortzea eta eguneroko bizitzan duten zeregina.
- Adimen emozionala. Golemanen proposamena. Zertan lagun diezagukeen adimen emozionalaren ikuspegiak.

Balio etikoak - DBH 1

- Nork bere nortasuna eraiki al dezake?
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Introspekzioa erabiltzea emozio eta sentimenduak hauteman eta kontrolatzeko.
- Benetako egoerak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea.
- Bizi-proiektuarekiko interesa azaltzea.
- Arrazoimenaren eta askatasunaren erabilera estimatzea.

3. eduki multzoa: elkar ulertzea, errespetua eta berdintasuna pertsonen arteko harremanetan

- Natura-Kultura dialektika.
- Judizio moralak. Ba al du tokirik moral autonomo batek eragin handiko gizarte batean?
- Etika, morala eta zuzenbidea. Dimentsioak eta elkarguneak.
- Asertibitatea. Asertzio-estrategiak. Gaitasun sozialak.
- Emakumeak gure gizartean duen irudia: estereotipoak eta aurreiritziak. Genero-indarkeria.
- Orientazio afektibo-sexualaren aukerarekiko errespetua. LGTB kolektiboa. Orientazio afektibo-sexuala hautatzeari begirunea izatea. Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kolektiboa (LGTB).
- Proposamen eta judizioak emateko argudioak erabiltzea.

Balio etikoak - DBH 1

- Errespetuzko komunikazio-teknikak erabiltzea.
- Benetako egoerak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea.
- Egoera gatazkatsuetan elkarriketa baliatzea, eta, beharrezkoa bada, bitartekotza.
- Ekimena azaltzea.
- Asertibitatea eta beste gaitasun sozial batzuk azaltzea.
- Indarkeriazko eta giza eskubideen aurkako jokabideak esanbidez gaitzestea.
- Indarkeria eta genero-diskriminazioko egoerak esanbidez gaitzestea.

Balio etikoak - DBH 1

Balio etikoak ikasgaiarekin lotutako **9 fitxa pedagogiko** prestatu ditugu DBHko 1. mailarako, betiere herritarren testigantzak oinarri hartuta. Proposamen horiek **hiru gai nagusitan** banatuta daude, eta atal bakoitzak **fitxa didaktikoak** ditu.

*GAI NAQUSIAK**A. EMAKUMEEN DISKRIMINAZIOA HISTORIAN ZEHAR*

Genero-diskriminazioa jorratu dugu atal honetan, begirada historiko batetik, baita diskriminazio horrek bizikidetzan izan duen eragina ere. Patriarkatuan oinarritutako gizarte-eredua ez da atzo goizekoa, baina gerraosteko urteetan, Francoren diktaduragaraian, emakumearen zapalkuntza areagotu egin zen. Emakumeak zer rol izan duen ezagutzea eta gertatutako diskriminazio-egoerez hausnartzea oso garrantzitsua da, nondik gatozen konturatzeko eta historian zehar eskuratutako lorpenez jabetzeko. Izan ere, feminismoaren historia lorpen horien guztien batura da, ez bakarrik elkarte jakinen lanaren ondorioa. Gizarte-eredua guztion artean aldatzen dugu.

Atal honetako proposamenak aurrez landutako ikasmateriala osatzera datoz (ikus Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako prestatu genituen fitxak sarean: [Emakumearen egoera lehen](#), [Etxeko lanen banaketa](#), [Emakumea lan munduan](#), [Emakumea eta janzkera](#), [Emakumea eta aisia](#)).

Ikasgaiak

- Herritartasunerako Hezkuntza (19)
 - Euskara eta literatura (1)
 - Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia (5)
 - Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera (4)
 - Euskal Herriko historia (1)

Emakumea lan munduan

Emakumeak eta aisia

Emakumeak eta janzkera

Emakumeen egoera lehen

Erraketistak

Etorkinak eta integrazioa

*Balio etikoak - DBH 1***Gaiak:**

- Ezkontzean lantegietatik bota
- Emakumeen "soldaduska" frankismoan
- Nokaren galera Oñatin

B. GENERO-BERDINTASUNA GAUR EGUN

Azken urteotan genero-berdintasuna lortzeko bidean aurrerapausoak eman diren arren, berdintasuna lortzeko asko falta da, eta ikasleak gai horri buruz hausnartu, zapalkuntza-egoerak identifikatu eta diskriminazio ororen kontrako jarrera garatzea oso da garrantzitsua. Horixe da helburu nagusia, gaur egun generoaren alorrean dauden hutsuneak ezagutaraztea eta errealitateaz jabetzeko tresnak ematea. Besteak beste, emakumeak gure gizarteko hainbat eremutan (aisialdia, kultura-jarduerak, kirola, etxea, eskola...) duen irudia: genero-indarkeria elikatzen duten estereotipoak eta aurreiritziak. Benetako egoerak aztertu eta kritikoki ebaluatzeko baliabideak eskaintzen ditugu, ohitura-aldaketak posible direla erakusten duten adibideak emanez.



**Ohiturak aldatzen:
Eskoriatzako kasua**



**Emakumeak eta
surfa**

Gaiak:

- Emakumeak eta surfa
- Idazlea emakumea denean
- Emakumeak bertsoen plazan
- Matxismoa ezkutuan? Adibide batzuk
- Ohiturak aldatzen: Eskoriatzako kasua

*Balio etikoak - DBH 1**C. LGTBIQ+ KOLEKTIBOA*

Lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen kolektiboaren (LGTBIQ+) bizipenak eta aldarrikapenak ezagutaraztea da proposamen honen asmoa. Orientazio afektibosexualaren aukerarekiko eta genero-nortasunarekiko errespetua sustatzea, azken batean. Heterosexualitatearen parametro klasikoak eta etiketak zalantzan jartzeko eta pentsarazteko bidea egitea. Kolektibo horrekin lotutako gizarte-estereotipoak eta diskriminazio-egoerak ezagutzeko eta horien gainean hausnartzeko bideak eskaintzen ditugu. Bidenabar, ikasleak BERDINDU bezalako zerbitzuen eta elkarten lana ezagutzera ere bultzatzen ditugu.

**Gaiak:**

- LGTBIQ+ kolektiboa

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

1. Ezkontzean lantegitik bota (Historia)

Emakumeen lan-eskubideak urratuta geratu ziren gerraostean, Francoren diktadurapean. Espainiako gobernu ultrakatolikoak neurri bereziak hartu zituen emakumea etxean gera zedin, etxearen eta familiaren kargu. Ezkontzen ziren emakumeak lantokia uztera derrigortzen zituzten, legez. Proposamen honetan egoera hori bizi izan zuten hainbat emakumeren testigantzak batu ditugu, eta ikasleak sasoi hartako genero-diskriminazioaz eta eskubide-urraketa guztiez (familia ugaria saritzeko sistema, besteak beste) hausnartzera gonbidatzen ditugu, eta, bide batez, baita gaur egungo egoera aztertzerara ere.



- Lantzen diren kontzeptuak: genero-diskriminazioa, lan-eskubideak, eskubide-urraketak, feminismoa, frankismoa, diktadura, ultrakatolizismoa, justizia, berdintasuna, parekidetasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Sexu-diskriminazioarekin eta eskubide-urraketekin kritiko agertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa
 - Lan-baldintza parekideen aldeko jarrera

2. Emakumeen “soldaduska” frankismoan (Historia)

Mutilek soldaduska egiten zuten bezala, Francoren diktadura sasoian emakumeek Zerbitzu Soziala egiten zuten. 17 eta 35 urte bitarteko emakume ezkongabeentzat derrigorrezkoa zen, goi mailako ikasketak egin, hainbat lanetan jardun edota pasaportea lortu nahi baldin bazuten. Zerbitzu Sozialean etxekoandre, ama eta emazte onak izaten irakasten zieten (sukaldaritza, umeen zaintza, jostintza...), Falangearen oinarriez gainera. Proposamen honetan hainbat emakumek euren esperientzia kontatzen dute, eta ikasleei sasoi hartako genero-rolak eta diskriminazioa ezagutzeko eta aztertzeko tresnak eskaintzen zaizkie. Bide batez, soldaduskari buruzko (derrigorrezkoa 2001. urtera arte) hausnarketa ere eragiten da, besteak beste, 1980ko hamarkadan sortutako desobedientzia zibileko gizarte-mugimenduari buruzkoa.



Emakumeen
"soldaduska"

- Lantzen diren kontzeptuak: Zerbitzu Soziala, Falangea, frankismoa, diktadura, soldaduska, genero-diskriminazioa, giza-eskubideak, desobedientzia zibila, berdintasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Gure aurreko emakumeen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Sexu-diskriminazioarekin eta eskubide-urraketekin kritikoa agertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

3. Nokaren galera Oñatin (Historia)

Hitanoa eremu informalean erabiltzen den lagunarteko hizkera da. Hizkera horretan gizonezkoei toka hitz egiten zaie eta emakumeei noka. Nokako tratamendua galzorian dago (baita euskararen arnagune diren herrietan ere) eta arrazoiak neurri handi batean generoarekin lotuta daude: emakumeari egokitu zaizkion rol eta aurreiritziekin, eta hortik eratorritako diskriminazioarekin. Hitanoa mutilen hizkeratzat hartua izan da. Proposamen honetan Oñatiko hainbat emakumeren esperientziak eta iritziak bildu ditugu, eta noka berreskuratzeak emakumeen ahalduntze-tresna gisa izan dezakeen balioaz eztabaidatzera animatzen ditugu ikasleak; feminismotik egiten diren irakurketak aztertuko ditugu (genero-markarik gabeko hizkeren aldeko jarrera, besteak beste).



- Lantzen diren kontzeptuak: hitanoa, noka, genero-diskriminazioa, hizkera informala, berdintasuna, genero-marka, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Gure aurreko emakumeen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa
 - Hitanoari eta nokari buruz jakiteko irrika, gazte-hizkera informala aberasteko balio duela jabetuta
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko gogoia

4. Emakumeak eta surfa (Gaur egun)

Aisialdian ipini dugu arreta, kirolaren eremuan hain zuzen ere. Oso maskulinizatua dagoen eremua da kirolarena, gaur egun ere begi-bistako berdintasun falta erakusten duena, eliteko kiroletan bereziki. Surfa da landu dugun kirola, emakumearen irudia zein den surfaren munduan: genero-diskriminazioa elikatzen duten estereotipoak eta aurreiritziak. Bi emakume surfari elkarrizketatu ditugu, haien iritziak eta bizipenak jasotzeko. Hala, benetako egoerak ezagutu eta kritikoki ebaluatzeko baliabideak eskaintzen ditugu. Proposamen honek hainbat kiroltako egoera aztertzeko bidea ematen du.



- Lantzen diren kontzeptuak: kirola, aisialdia, genero-diskriminazioa, berdintasuna, gizarte-eredua, matxismoa, esponsor edo babesleak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Emakume kirolarien esperientziak ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

5. Idazlea emakumea denean (Gaur egun)

Gero eta gehiago dira emakume idazleak euskal literaturan. Azken hamarkadetan izen asko agertu dira letren plazan. Proposamen honen helburua ez da begirada historiko bat eskaintzea, begirada gaur egungo egoeran jartzea baino: aukera- eta tratamenduberdintasuna ote dago euskal literaturan orain? Emakume idazleak eta literatura-adituak elkarrizketatu ditugu, haien iritzia jaso eta ezagutarazteko. Bidenabar, gaur egungo idazle esanguratsuen lan batzuk ezagutzeko parada ere izango dugu, genero-ikuspegitik interesgarriak direnak, eta ikasleen literatura-sormena aktibatzeke proposamenak ere egiten ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: euskal literatura, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Emakume idazleen bizipenak eta esperientziak ezagutzeko interesa
 - Literatura genero-ikuspegitik lantzeko irrika
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

6. Emakumeak bertsoen plazan (Gaur egun)

Bertsolaritza oso mundu maskulinoa izan da duela hamarkada gutxi arte. Emakume bertsolariek ez dute bide erraza eduki. Gero eta gehiago dira, baina hala ere gutxi, mutilekin alderatuta. Gizonezkoen baldintza eta egoera beretan aritzen al dira plazan kantuan? Hainbat emakume bertsolari elkarrizketatu ditugu, oholtza gainean nola sentitzen diren jakiteko eta gainditu behar izaten dituzten oztopoak ezagutzeko. Bertsolaritzarekin lotutako proposamen sortzaileak egin ditugu, berdintasunarekin lotuta eta ahozkotasuna lantzeko.



- Lantzen diren kontzeptuak: bertsolaritza, musika-taldeak, genero-diskriminazioa, berdintasuna, plaza, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Bertso munduko emakumeen bizipenak ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko gogoia

7. Matxismoa ezkutuan? Adibide batzuk (Gaur egun)

Berdintasunean bizi garela iruditzen zaigu sarritan, parekidetasuna dagoela gizarteko eremu gehienetan. Hala al da? Berdin jokatzeko al dute neskek eta mutilek? Genero aldetik baldintzatzen gaituzten aurreiritziak, rolak eta estereotipoak aztertzen ditugu bideo-proposamen honetan, eguneroko bizitzako adibideak jarrita: janzkera, aisialdia... Genero-diskriminazioa eta autozentsura eragiten duten faktoreak ezagutzeko oso garrantzitsua da gure gizarte-ereduko patroiz zaharkituak ulertzeko eta aldatzen saiatzeko. Jantzi ditzagun "betaurreko moreak", gure ingurua hobeto ikusteko eta, ondoren, matxismo-egoerak -makro zein mikro- identifikatzeko eta ekiditeko. Eztabaida eraikitzaileak eta sormenarekin lotutako jarduerak proposatzen ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: diskriminazioa, berdintasuna, parekidetasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, sexismoa, estereotipoak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko gogoia

*Balio etikoak - DBH 1***8. Ohiturak aldatzen: Eskoriatzako dantzen kasua (Gaur egun)**

Zaila da ohitura batzuk aldatzea; genero-diskriminazio egoera batzuk betikotu egiten dira tradizioaren izenean. Hainbat herritako dantza tradizionalak eta ospakizunak dira horren adibide: mutilek soilik parte hartzen dute, “beti” horrela izan delako. Alabaina, posible da ohiturak aldatzea, eta badira adibide zehatzak. Gero eta gehiago, gainera. Eskoriatzako dantzen kasua da bideo-fitxa honen oinarria; izan ere, neskak ere parte hartzen hasi dira bertan eta tradizioa berritu dute. Prozesuaren berri ematen dugu, protagonistei ahotsa emanez. Beste kasu batzuk aztertzeko eta hausnarketa eragiteko balio du, begirada herriko eta eskualdeko ohituretan jarrita, eta tradizioa etengabe berritzen dela konturatzeko ere bai. Sormena lantzeko proposamenak egiten ditugu.



Ohiturak aldatzen:
Eskoriatzako kasua

- Lantzen diren kontzeptuak: tradizioa, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Historia hurbila ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko gogoia

9. LGTBIQ+ kolektiboa

Lesbiana, gay, trans, bisexual, intersexual, queer eta beste hainbat errealitate barnebiltzen dituen kolektiboa da LGTBIQ+. Letra bakoitzak zer esan nahi duen ezagutuko dugu, gaien adituak diren pertsonen azalpenen bitartez. Genero-nortasunarekiko eta orientazio afektibo-sexualaren aukerarekiko errespetua sustatzea izango da helburua. Heterosexualitatearen parametro klasikoak eta haren bueltan eraturako heteroaraua zalantzan jartzea, eta bide batez kolektibo horrekin lotutako gizarte-estereotipoak eta diskriminazio-egoerak ezagutzea. LGTBIQ+ kolektiboko azpitaldeak ikertzeko proposamenak egin ditugu, eta enpatia lantzeko jarduerak ere proposatzen ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: diskriminazioa, berdintasuna, gizarte-eredua, lesbiana, gay, homosexualitatea, heterosexualitatea, bisexuala, transexuala, transgeneroa
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Nortasun sexualarekiko eta orientazio afektibo-sexualarekiko errespetua erakustea
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Diskriminazio guztiekin kritiko agertzea
 - Homofobiaren eta transfobiaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Inguruan dugun aniztasuna ezagutu eta baloratzeko nahia izatea

NOIZ ETA NOLA ERABILI

- *NOIZ erabili:*

Balio etikoak irakasgaia ematean erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko 1. mailan. Irakasleak erabakiko du noiz erabili eta jarduera bakoitzari zenbat denbora eskaini.

- *NOLA erabili:*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera. Asko dira bideo-fitxak, gero eta gehiago. Horregatik, bost ataletan banatuta dagoen bilaketa-sistema bat garatu dugu, bakoitzak interesatzen zaiona errazago aurki dezan:

- Motak
- Mailak
- Gaiak
- Ikasgaiak
- Proiektuak

Erabiltzaileak, bere interesen arabera, laukitxoetan (bakarrean edo nahi bestetan) klik egiteko aukera dauka. Adibidez:

“EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” (proiektua)

Balio etikoak (ikasgaia)

Genero-berdintasuna (gaia)

Balio etikoak - DBH 1

-Motak. Bi motatako bideo-fitxak daude: 1. Fitxa didaktikoak; 2. Kantak eta jolasak. Ikasmaterialekoak fitxa didaktikoak dira.

-Proiektuak. Hainbat proiektutarako prestatutako bideo-fitxak ditugu.

“EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua aukeratuz gero, proiektu horretarako prestatu ditugun lanketa guztiak agertuko zaizkigu.

-Ikasgaiak. Ikasgaien zerrendan, nahi duena aukera dezake irakasleak. Adibidez, “Balio etikoak” en klik eginez gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio.

-Gaiak. Gaien zerrendan, gai bat aukera dezake irakasleak. “Genero-berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio.

Fitxak

Mailak

- DBH (12)

Gaiak

- Genero berdintasuna (6)
- Gerra (1)
- Ohiturak (2)
- Ekonomia (1)
- Integrazioa (1)
- Ingurumena (1)

Ikasgaiak

- Herritartasunerako Hezkuntza (12)
- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia (1)
- Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera (1)

Proiektua

- Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan (12)

GARBITU FILTROAK

Auzolanaren kultura

Baserritarrak gutxietsita

Dena aprobetxatzen zen

Elkar errespetatzea

Emakumea lan munduan

Emakumeak eta aisia

Emakumeak eta janzkera

Emakumeen egoera lehen

Etorkinak eta integrazioa

Balio etikoak - DBH 1

-Mailak. Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere badauka irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria... Adibiderako, ikus fitxa hau: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan uneoro. Ikasmateriala erabilita sortutako ekoizpenak partekatzeko aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa

Gure fitxa didaktikoak ez dira Sekuentzia Didaktikoak, baina Sekuentzia Didaktikoen izaera eta metodologia kontuan hartuta prestatuko ditugu (Dolz & Schneuwly 1997); horrenbestez, SDak sortzeko bidea emango dute. Sekuentzia Didaktikoak helburu konkretu eta erreal bati erantzuteko jarduera-multzoak dira. Guk bideoekin lotutako jarduerak proposatuko ditugu eta baita helburu konkretuak ere (ahozko ekoizpenak

Balio etikoak - DBH 1

batik bat, hainbat bitarteko eta euskarri erabiliz); eta ebaluazio-irizpideak ere bai. Bidenabar, materiala eta ikaste-prozesua esanguratsuak izatea bermatuko dugu. Irakaslearen esku dago jarduera horiek harikaldtu, gaian sakondu eta egokia iruditzen zaion ekoizpen erreala batekin amaitzea. Gure proposamen didaktikoak irekiak dira, eta irakasleak nahi bezala molda ditzake.

Landuko diren jarduerak egitura kooperatiboak erabiliz gauzatzea proposatuko dugu (Kagan 1999). Ikasten ari diren berdinaren arteko interakzioa sustatuko da, benetako ideien elkartrukea eta eztabaida. Adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatuko dira, talde-lanean. Ikasketa kooperatiboaren printzipioak:

- Elkardependentzia positiboa.
- Aurrez aurreko interakzioa.
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako bederatzi bideo dira. DBHko 1go mailan *Balio etikoak* irakasgaiaren lantzen diren edukiei erreparatuta osatutako ikus-entzunezko multzoa. Bideo horiek bereziki Ahotsak.eus dute oinarrian; gazteen zein adinekoen testigantzak.

Bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira. Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak, argazkiak...

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz fitxako atalak:

A “Proposamen Pedagogikoa” atala:

Ikasleek garatu beharreko oinarrizko gaitasunekin lotuta daude proposamen pedagogikoa. Ikasleen autonomia, sormena, ikerketa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko estrategiak bultzatuko dituzte. Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin, hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, [Dena aprobetxatzen zen](#) fitxan hauek datoz:

- *Garapen iraunkorraren aldeko joera*
- *Ondasun komunak errespetatu eta zaintzeko ohitura*
- *Aniztasuna aintzat hartzeko eta era positiboan baloratzeko gogoia*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa*

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta [hiru alditan](#) banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:

- Aurre-ezagutzak aktibatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

*Balio etikoak - DBH 1***2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:**

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu
- Iragana eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak)
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin (talde-dinamikak).
- **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamaika azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

"Testigantza bila". Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatzea, adibidez, herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

"Zu zeu elkarriketatzaile". Ikasleek elkarriketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

"Hitzen arrastoan". Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

"Gaur egunera begira". Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

"Historia egiten". Ikerketa eginez, historiara begiratu, eta gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.

"Mundu zabalean". Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

"Eman iritzia". Gai horri buruz hausnartzea, nork bere iritzia eraikitzeko.

Balio etikoak - DBH 1

"Ika-mika". Nork bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritziak ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

"Bestearen azalean". Besteen azalean jartzea eta egoerak asmatzea, rol-jokoaren bidez empatia lantzeko.

"Sormena lagun". Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak, artearen bidetik (ilustrazioa, komikia...) eta *brainstorming* edo ideia ekaitzak eta lehiaketak sustatuz.

"Jolastean". Jolasa erabiliko da, eskulanak batez ere, jolastuz ikasteko.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkoatasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei haien lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlanak, eztabaida, ozenki irakurtzea...). Jarduerak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoez jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.
- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jarriko ditugu, irakasleak ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak. Grabazioak ikusi ondoren egin daiteke ebaluazioa. Hona hemen adibide bat, [Santa Ageda eskoriatzan: nesken parte-hartzea](#) bideoarekin lotutakoa.

Hauek izango lirateke gaiarekin lotutako ebaluazio-irizpide orokorrak, kasuan kasu moldatu beharrekoak:

Balio etikoak - DBH 1

Ikasleen autoebaluazioa. Ikasle bakoitzak zertan ikasi duen, zer ikasi duen eta talde gisa zer ikasi duen zehaztu beharko du. Ikasleek euren autoebaluazioa egiteko, egin ditzakegun galderak:

Edukiari buruz

- Ea gaiak interesa piztu dion.
- Ea gaiari buruz ikasi izanaren sentsazioa duen: gutxi-zerbait-dezente-asko.

Ikaste-prozesuari buruz

- Ea bideoa eta testigantzak baliagarriak gertatu zaizkion.
- Ea ikaste-prozesua gustukoa eta eraginkorra izan den berarentzat.
- Ea informazioa bilatzeko arazorik izan duen edo erraza gertatu zaion.
- Ea guztira informazio berri asko jaso duen eta hausnartzeko balio izan dion.

Bere komunikaziorako gaitasunei buruz

- Ea iritzia lasaitasunez emateko aukera izan duen ala zailtasunak izan dituen.
- Ea ahozko ekoizpenean lasai sentitu den eta nahi zuena azaltzeko gai izan den.
- Ea pozik dagoen ekoiztako lanarekin.

Talde-lanari buruz

- Ea talde-lanean eroso sentitu den eta aberasgarria gertatu zaion.
- Ea balioesten duen talde-dinamika ala arazoren bat izan duen.

Balio etikoak - DBH 1

Irakaslearen ebaluazioa. Irakasleak ikasleak ebaluatzeko, kontuan hartu ditzakeen irizpideetako batzuk:

- Ea bideoetako testigantzen garrantziaz jabetu den eta interesa erakutsi duen.
- Ea lehenaldia eta orainaldia lotzeko eta bere ikuspegia aberasteko gogoia eta gaitasuna izan dituen.
- Ea enpatiarik erakutsi duen bideoko pertsonekin.
- Ea feminismoaren historia eta historian zehar eskuratutako lorpenak ezagutzen dituen.
- Ea emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasunaren aldeko jarrera argiak adierazten dituen, haien orientazio afektibo-sexuala edozein izanik ere.
- Ea hainbat eremutan (publizitatea, informazioa, txisteak, eskola eta abar) emakumeari edo LGTBI kolektikoari buruz ageri diren gizarte-estereotipoak biltzen eta aztertzen dituen.
- Ea emakumea edo LGTBI kolektiboko kideak gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzen dituen.
- Ea kultura-elementuen (estereotipoak, rolak eta abar) eta emakumeen edo LGTBI kolektiboaren diskriminazioaren arteko lotura azaltzen duen.
- Ea sexu-diskriminazioaren eta indarkeriaren aurkako jardunak proposatzen dituen.

Balio etikoak - DBH 1

- Ea lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kolektiboek (LGTBI kolektiboa) buruzko informazioa bildu duen eta haien aldarrikapenak barneratu dituen.
- Ea ikaskideekin eztabaidatuz gogoeta egin duen LGTBI kolektiboaren egoeraren inguruan eta eskolan zein gizartean duen ikusgaitasunaren inguruan.
- Ea LGTBI kolektiboa gutxiestea, diskriminatzea eta/edo haren aurkako indarkeria sustatu eta justifikatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak gaitzesten dituen.
- Ea Emakunde erakundearen, Berdindu zerbitzuaren eta berdintasuna sustatzeko beste erakundeen ezaugarriak, funtzioak eta programak ezagutzen dituen.
- Ea ikerketan informazioa lortzeko gaitasuna erakutsi duen, iturriak bilatzeko orduan.
- Ea informazio hori bere gogoetak eta ikuspuntua egituratzeko edo eraldatzeko erabili duen.
- Ea talde-lanean ondo moldatu den, berdinen arteko harremanean iradokizunak eginez eta ikaskideen iritzia errespetatuz.
- Ea bere iritzia eta hausnarketak partekatu dituen, horretarako txanda errespetatuta.
- Ea ahozko ekoizpean ondo moldatu den, komunikatzeko gai izan den.

B Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.

Balio etikoak - DBH 1

- **Testuingurua.** Gaiak kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: *Ahotsak.eus* webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.
- **Argazkiak.** Ikasmaterialeko proposamenek hala eskatzen dutenean, argazkiak ere jartzen ditugu fitxetan. Adibiderako, ikus [Bertsolaritzaren garapena](#) fitxa.



PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

1. *Gaia:* Ezkontzean lantegitik bota. Historia.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-lantegitik-etxera>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Materiala** Euskalkitegia

Ezkontzean lantegitik bota

Emancipazioaren diktadura garaian, emakumeak lantegietatik etxera bidaltzeko lege bat jarri zuten (1942-1961). Ezkontzean, lana uztera derrigortzen zituzten.

Mailak: DBH
Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak: Balio etikoak

Urtimena historikoa

★★★★★
 5.00 puntu 5 izarreko maximitik.
 1 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Frankismo garaiko lege bat ezagutuko dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu:

- Zuen amonek lanik egin al zuten etxetik kanpo? Eta aitonek?
- Zuen amonek izan al zuten ikasketak egiteko aukerarik? Eta aitonek?
- Zuen ustez, emakumeek beti izan al dute lanerako aukera? Libre al ziren etxetik kanpo lan egiteko ala norbaiten baimena behar zuten?
- Emakumeek lanean jarraitzen al zuten ezkontzen zirenean?

Balio etikoak - DBH 1

Hori bai, ezkontzen zirenean, ohikoa zen lana uztea. Lanean jarraitu nahi zuenak senarraren baimena behar zuen.

2. Lanbidea ikasketekin oso lotuta egoten da. Garai batean emakume gehienek ez zuten ikasketarik egiten. Ez zeukaten unibertsitatera joateko aukerarik. Eta joaten zirenek “nesken ikasketatzat” hartutakoak egiten zituzten.

-Ba al dakizue zer ikasketa ziren “nesken ikasketatzat” hartzen zirenak? (Haur eta helduen zaintzarekin eta heziketarekin lotutakoak: erizaintza, irakasle ikasketak...)

-Gaur egun, ba al dago bereizketarik mutilen eta nesken artean ikasketei dagokienez? (Erizaintza, irakasle ikasketak, ingeniari-tza, hegazkin pilotu, lanbide heziketa...)

[Bideo hau](#) ikus daiteke, eta komentatu, ea gure iruditeriarekin bat datorren ala ez.



[Irudia](#): suhiltzaileak.

*Balio etikoak - DBH 1***Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Atentziona eman dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. (Adibidez, *Michelin*, *Tabakalera* eta *SOBI* bezalako hitzen esanahiak).

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritzia partekatu, talde handian:

- Zergatik behartzen zituzten emakumeak lana uztera, ezkontzen zirenean?
- Familia ugariak bultzatzeko diru-sariak ere bazeuden. Zergatik?
- Zer sentitu duzue bideoa ikusita?

Emakumearen irudi tradizionala berreskuratu zuten frankismo sasoian: etxeoandre eta ama ona, elizkoia eta lagunkoia, senarrari men egingo ziona. *Umeak-etxea-eliza* trilogia naziarekin egin zuten bat. Hainbat neurri hartu zituzten norabide horretan.

Emakumeen garai bateko egoera erakusten duten beste bi bideo hauek ere ikus daitezke: [Emakumea lan munduan](#) eta [Emakumeen "soldaduska"](#).

Balio etikoak - DBH 1

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordeztu bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Gaur egunera begira"*. Gaur egun zein da egoera lan-munduan, emakume eta gizonei dagokienez? Berdintasuna al dago? (Langabezia-tasak, lanpostu-mailaketa, lan-baldintzak eta soldatak)

Banaka edo binaka egin daiteke: albiste bat aurkitu (adibide batzuk: "[Inkesta: lanean diskriminatuta](#)", "[Inkesta: pandemiaren eragina soldata arrakalan](#)" eta "[Elkarrizketa: emakume etorkinen diskriminazioa lan munduan](#)"). Laburpena egingo dute, eta ahoz azaldu eta iritzia eman, gelakideen aurrean. Aurkezpen txiki bat presta dezakete, adibidez [Prezi](#) programarekin; erabiltzen ez badakite, ereduak erakutsiko zaizkie.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Jarduera hau binaka egitea proposatzen da. Emakumeak elkarrizketatuko dituzte, lan munduko diskriminazioei buruz. Elkarrizketatuak adinekoak izan daitezke, eta euren gazte sasoiko kontuak kontatu ditzakete. Galderak ikasle guztiek batera prestatu ditzakete; horretarako, lehenengo informazio-bilketa egingo dute gerraosteko lege eta lan baldintzen gainean.

Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoz grabatuko dituzte —bideokamera edo sakelakoa erabilia—, gero gelakideei erakusteko. Aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte: izena, nongoa den, zein harreman duten harekin, etab.

Grabazio guztiekin bideo-muntaia egin dezakete, [OpenShot](#) programarekin, elkarlanean. Nola erabili erakutsiko zaie. Bideo hori ikastetxean eta herrian

Balio etikoak - DBH 1

zabalduta daitezke. Posible da grabazioak gero ahotsak.eus ahozko ondarearen artxibora bideratzea ere.



Irudia: [Badihardugu Elkartea](#).

"Historia egiten". Ikerlari lanetan jarriko gara. Emakumea, ikasketak eta lanbideak hartuko ditugu ikergai moduan. Historian zehar emakumeek egindako lorpenak, gaur egungo egoerara iritsi arte. Hona hemen bi lan ildo:

1-Gizonez mozorrotzen ziren emakumeak, "gizonezkoen eremuetan" aritzeko. Ikasteko, lan egiteko, bidaiatzeko...

2-Ustez gizonezkoenak ziren ikasketak egin zituzten lehenengo emakumeak nortzuk izan ziren (nazioartean, Europan, Euskal Herrian...). Gaur egun unibertsitateak emakumez beteta daude, baina sasoi batean ikasle guztiak gizonezkoak ziren.

Egindako ikerketaren emaitza ikaskideekin partekatuko dute. Informazioaz gainera, gaiarekin lotutako argazkiak lortuko dituzte: aitzindariak izan ziren

Balio etikoak - DBH 1

emakumeenak. Ondoren, argazkiekin collagea ere egin daiteke, guztiek batutako informazioarekin eta irudiekin.



[Irudia](#): Catalina de Erauso

4. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitza erakusteko. Aurkezpenak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira bideokamerarekin. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).

*Balio etikoak - DBH 1***2. Gai:** Emakumeen "soldaduska" frankismoan. Historia.<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeen-soldaduska-frankismoan>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Materiala** Euskalkitegia

Emakumeen "soldaduska"

Netarako Zerbitzu Soziala egin behar zuten, mutilek soldaduska bezalaxe. Frankismo garaian ezarri zuten, eta langerearen Sección Femeninan egin behar zen. Bestela, emakumeek ezin zuten pasaporterik ez gidabaimenik ateratu, eta ezta ikasketa titulurik lortu ere.

Emakumeen "soldaduska" frankismoan

Mailak: DBH

Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan

Ikasgaiak: Herritartasunerako Hezkuntza, Balio etikoak

Gaiak: Genero berdintasuna

★★★★★

4,82 puntu 5 izarreko maximotik

22 intzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Ikasleen aurre-ezagutzak aktibatuko ditu, talde handian gisa honetako galderak eginez:

- Zein zen emakumearen egoera frankismoan? Nolakoak izatea eta zer egitea eskatzen zitzaien (ama, etxeandre, emazte... onak)?
- Emakumeen bizimodua baldintzatu zuten hainbat neurri hartu zituen Espainiako Gobernuak. Ezagutzen al duzue bat edo bat?
- Gizonezkoek Zerbitzu Militarra -soldadutza- egitea derrigorrezkoa zen aspalditik (2001. urtera bitarte). Emakumeentzat, berriz, Zerbitzu Soziala ipini zuten 1939an. Nolakoak imajinatzen duzue? Zer egin behar izaten zuten?

*Balio etikoak - DBH 1***Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu (adibidez: *Sección Femenina, Falangea, Cara al sol, Casa Cuna, Formación del espíritu nacional, ajuarra...*).

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zerbitzu Soziala 18 eta 36 urte bitarteko neska ezkongabeek egin behar zuten. Zer iruditzen zaizue kontrol-modu hori?
- Eta zer diozue txartela edo titulua lortzeko ikasi eta egin beharrekoek?
- Txartelik izan ezean, ezin zuten pasaportetik eta gidabaimenik izan, ez unibertsitate-ikasketarik egin... Esaten zuten ez zela derrigorrezkoa, baina asko mugatzen zuten (besteak beste, mugikortasuna). Zer iritzi duzue?
- Zer sentipen eragiten dizkizute bideoan entzundakoek?

Balio etikoak - DBH 1

3. Emakumearen garai bateko egoerarekin lotutako beste bideo batzuk ere baditugu, erlijioaren pisua erakusten dutenak eta interesgarriak gertatu daitezkeenak. Ikusi, adibidez, [Emakumeak eta janzkera](#).




[Irudia](#): galtzak jantzita.

Nola janzten gara gaur egun? Ba al dugu mugarik janzkera aukeratzeko orduan? Eta bestelako morrontzarik? (Modarekin, adibidez). Zer gertatuko litzateke mutilek gonak edo tanga estiloko bainujantziak jantziz gero? Zer maskulinitate eta feminitate eredu dauzkagu?

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordezkotako bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- *"Historia egiten"*. Jarrai dezagun lehenaldira begira. Horretarako, telebistako iragarkiak dira modu bat. Gelan iragarki sexistak bat ikusi ostean (adibidez, [koñakaren iragarki hau](#), [Mercadonako hau](#) edo [beste hauetako bat](#)) ikasleak garai

Balio etikoak - DBH 1

bateko iragarkien adibide gehiago topatzera animatuko ditugu. Binaka egin dezakete lana eta bikote bakoitzak iragarki bat eraman dezake, gelakideekin partekatuzko: iragarkia erakustearekin batera, azalpenak eta iritziak emango dituzte.



- Zergatik aukeratu duten
- Zergatik den sexista
- Gaur egun ba al dagoen halako iragarkirik edo gertatzen den halakorik



- *"Sormena lagun"*. [Deliciosa Calma](#) eta [Modelos de mujer](#) iragarkiak ikusiko ditugu, eta ondoren, iritzi-trukea egin. Iragarki feministak al dira? Ala soilik iragarki feministak dirudite? Batzuen ustez, saltzen den produktua ez dator bat mezuarekin eta Campofriok bultzatzen duen emakume-ereduarekin (argala, kaloria gutxi jaten dituelako).

Ondoren, talde txikietan jarrita, sormen-lan bat egingo dute, ikus-entzunezko labor bat (gehienez 2 minutukoa): goitik behera asmatutako iragarki bat izan

Balio etikoak - DBH 1

daiteke, ikusitako iragarkien bertsio bat... Iragarkiarekin transmititu nahi den mezua izango da garrantzitsuena.

Ikus-entzunezkoa prestatzeko, honako urratsak jarrai ditzakete:

- **Idea zaparrada**
- **Egoera eta pertsonaiak zehaztu**
- **Gidoia idatzi:** eszenak eta lekuak zehaztu (zer eta non grabatu)
- **Grabazioa** (bideokamera batekin, argazki-kamera batekin edo sakelako telefonoarekin egin daiteke; tripodearen eta mikroaren erabilera gomendagarriak dira)
- **Edizioa** (kontuan izatekoa: plano bakarra baldin bada, adibidez, edizio-lana asko murriztuko da)
- **Lana partekatzea:** emanaldia eta iritzi-trukea

Ariketa honek hausnarketarako eta irudimenari atea zabaltzeko balio du.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Etxeko edo inguruko adinekoei elkarrizketak egin, eta emakumeen egoeraren inguruan haiek bizi izan dutena jaso. Zerbitzu Soziala 1939an ipini zuten abian eta 60ko hamarkadara arte iraun zuen. Baina emakumea gizonaren menpe jartzen zuten beste hainbat lege ere egon ziren: ezin zuten senarraren baimenik gabe lanik egin, ez kontu korronterik eduki, ezta atzerrira bidaiatu ere... eta dibortzioa debekatuta zegoen.



Irudia: Zerbitzu Sozialean, jaioberriak nola zaindu erakusten.

Balio etikoak - DBH 1

Galderak gelan prestatuko dituzte, denek elkarrekin, eta gero lana binaka egin. Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoz grabatuko dituzte —bideokamera edo sakelakoa erabilia—, gero gelakideei erakusteko. Aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte: izena, nongoa den, zein harreman duten harekin, etab.


Grabazio guztiekin bideo-muntaia egin dezakete, [OpenShot](#) programarekin, elkarlanean. Nola erabili erakutsiko zaie. Bideo hori ikastetxean eta herrian zabaldu daiteke. Posible da grabazioak gero [ahotsak.eus](#) ahozko ondarearen artxibora bideratzea ere.

- *“Mundu zabalean”*. Soldaduska derrigorrezkoa izan zen mutilentzat 2001. urtera arte. 80ko hamarkadan gizarte-mugimendu handia egon zen soldaduskaren kontra: hainbatek egin zioten uko zerbitzu militarra egiteari, eta hainbat izan ziren atxilotuak (ikus [bideoa](#)). Egan musika-taldearen *‘Intsumisioa’* abestiaren [bideoa](#) ere ikus daiteke. Intsumisioa, desobedientzia zibila, kontzientzia eragozpena... hitz horiek txitean-pitean erabiltzen ziren. Argitu dezagun kontzeptu horien esanahia, guztion artean informazioa bilatuta.

Desobedientzia zibilarekin lotutako egoerak aztertuko ditugu, talde txikietan jarrita. Mundu zabalekoak, atzokoak eta gaurkoak. Emakumeen borrokei arreta berezia jarriko diegu; izan ere, askotan historia gizonaezkoek kontatu dute eta emakumeen balentriak ezkutuan geratu dira. Adibide batzuk:

- Sufragio femeninoa (emakumeen boto eskubidea) lortzeko mugimendua, Erresuma Batuan.
- Rosa Parks (AEB). Arrazakeriaren eta matxismoaren kontra borrokatu zuen emakumea. Autobusean gizon zuri bati bere eserlekua uzteari uko egin zion eta hainbat ekintzatan hartu zuen parte.
- Wu Rongrong txinatarra atxilotu egin zuten 2015ean, Txinako garraio publikoetan gertatzen den akoso sexualaren kontrako kanpaina bat egiteagatik: *“Stop akoso sexualari”* pegatinak banatzeagatik.

Balio etikoak - DBH 1



Irudia: emakumeentzat botoa eskatzen

Taldetxo bakoitzak egindako ikerketaren emaitza gelakideei azalduko die.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren jardueren emaitza ezagutarazteko.

*Balio etikoak - DBH 1***3. Gai:** Nokaren galera Oñatin. Historia.<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/nokaren-galera-onatin>

The screenshot shows the website interface with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Nokaren galera Oñatin'. Below the heading is a short text: 'Oñatiko hizteen artean hitanoa bizirik dago, baina mutilek soilik darabilte. Nesken artekoa, noka, galtzen joan da. Hala eta zergatik? Noka hitz egiten duten herriko emakumei galdetu diegu.' Below this is a video player showing a woman speaking. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta Literatura, Balio etikoak
- Gaiak:** Genero berdintasuna
- 5 stars rating
- 5 puntu 5 izarreko maximotik
- Iritzi 1 guztira

Bideoa ikusi aurretik**1.** Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak.

- Hitz egiten al duzue hika? Hala bada, norekin?
- Ezagutzen dituzue tokako aditz-formak? Eta nokakoak?
- Zuen inguruan hitz egiten al dute hika? Hala bada, nork norekin?
- Gustatzen al zaizue? Ez badakizue, gustatuko litzaizueke jakitea?
- Zer ezaugarri ditu hitanoak zuentzat (informala, zakarra-goxoa, hurbilekoa-arrotza, zaharkitua-guay-a...)?
- Mutilen artean hedatuago dago hitanoa. Zergatik izan daiteke?

Balio etikoak - DBH 1

Hitanoa galtzen joan da azken hamarkadetan, bereziki emakumeen artean. Oñatiko kasua ezagutuko dugu: hika dakiten hainbat emakumezkoren iritziak entzungo ditugu.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentziora eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez: oñatierako hitzak (*itxi* = utzi) eta hitanoko aditzak.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Komentatu agertu diren arrazoiak.
- Zuen ustez, egon daiteke genero-diskriminaziorik hitanoaren galeran?
- Neskek hitanoa ikastea ahalduntzeko tresna bat izan al daiteke?
- Gustatuko litzaizueke eskolan hitanoa lantzea? Baliagarria al da lagunarteko jardunerako?

3. Gaiarekin lotutako bideo hauek ere ikus daitezke:

[Hitanoaren erabilera](#)

[Hika berreskuratzen: esperientziak](#)

Balio etikoak - DBH 1

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Hika hitz egiten dakien pertsona bat elkarrizketatuko dute ikasleek (binaka edo hirusaka), eta haren esperientzia jasoko dute: nola ikasi zuen, norekin erabiltzen duen, bere inguruan transmisiorik egon den ala ez, galeraren arrazoi posibleak... Elkarrizketa egin aurretik, galdetegia prestatuko dute denen artean (elkarrizketatua ikasleak baino nagusiagoa baldin bada, zuka). Elkarrizketa hitanoz jasotzea izango litzateke politena.

Bideokamerarekin edo poltsikoko telefonoarekin grabatzea komeni da, gero grabatutakoa ikaskideekin partekatzeko. Ikus elkarrizketak egiteko [jarraibide orokorrak](#). Argazki bat ateratzea ere ondo legoke. Bideoa erakutsi aurretik, elkarrizketatuari buruzko datu batzuk emango dituzte ikasleek: izen-abizenak, biografia laburra, nondik ezagutzen duten...


Grabazio guztiekin bideo-muntaia egin dezakete, [OpenShot](#) programarekin, elkarlanean. Nola erabili erakutsiko zaie. Bideo hori ikastetxean eta herrian zabaldu daiteke. Posible da grabazioak gero [ahotsak.eus](#) ahozko ondarearen artxibora bideratzea ere (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).



Irudia: Badihardugu Elkarteko kidea elkarrizketa bat grabatzen

Balio etikoak - DBH 1

- *"Eman iritzia"*. Noka berreskuratzeari buruz hausnartuko dugu. Horretarako, hainbat galdera ipini ditzakegu mahai gainean eta hainbat ildo jorratu:



-Hitanoa berreskuratu beharko litzateke? Zergatik?

-Emakumeen ahalduntzerako tresna bat izan daiteke?

-Hitanoak genero-binomioa indartzen al du?

-Berreskuratuz gero, erabilera-arauak errespetatu egin behar al dira ala malgutasunez joka dezakegu?

-Nola berreskura daiteke, zer jarduera eta ekintzarekin?

Kattalin Miner militante feministak noka erabiltzea erabaki zuen, beste feminista batzuek bezalaxe (ikus [testigantza](#)). Noka erabiltzeak zer ematen dion azaltzen du [testigantza honetan](#). Arauak malgutzearen alde dago eta hitanoak genero-binomioa indartzen duen ala ez eztabaidatzea "eztabaida tranposoa" iruditzen zaio. Ikus [Kattalinen bideoa](#).



Irudia: Kattalin Miner

Balio etikoak - DBH 1

Hitanoaren erabilera-ohiturak aldatzen eta malgutzen doaz denborarekin. Ikus erabilera-ohiturei buruzko bideoa: [Hika zeinekin?](#)



Bideo honetan, berriz, noka berreskuratu eta modan jartzeko zer egin daitekeen azaltzen dute Oñatiko hainbat emakumek: "[Zer egin noka modan jartzeko?](#)".

Ikasleek aipatu diren gaien inguruko iritzia emango dute. Iritzi-artikulu labur bana egingo dute, gero ikaskideen aurrean ozenki irakurtzeko. Irakurketarako Pako Eizagirreraren azalpenak kontuan izan ditzakegu ([Aittu.eus](#) webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40).

Artikulua idazteko, berriz, hona hemen aholku batzuk:

- **Egitura.** Artikuluaren egitura inportantea da: argudioek eta azalpenek ondo lotuta egon behar dute. Hurrenkera inportantea da. Hasiera eta bukaera zaintzea komeni da (azken esaldiak/paragrafoak ideia nagusia laburbil dezake).
- **Testu-antolatzaileak** erabili ohi dira, ideiak lotzeko (ikus taula beheago), ahoz zein idatziz.
- **Bi ikuspegiak kontuan.** Gure ikuspegia argudio-sorta baten bidez justifikatu behar dugu, baina kontrako argudio posibleak ere kontuan izanda (eta komeni bada, horiek ere artikuluan aipatuta). Ez dakigu hartzailearen ikuspegia zein izango den, artikulua publiko orokorrak irakurri dezakeelako.

Argudiatzeko erabiltzen diren estrategia linguistiko batzuk ikus ditzakegu, testuak idazten hasi aurretik (ahozko jardunean erabiltzen direnak dira, baina gehienek idatzirako ere balio dezakete):

ARGUDIATZEKO TESTU-ANTOLATZAILE ETA ESAMOLDEAK**1-Norberaren burua inplikatu/Arrazoitu**

Nire iritziz... Nire ustez... Uste dut... Iruditzen zait... -(e)la... Askok uste dugu... Nire ikuspuntutik/esperientziatik... Nik beti esaten dut... Gustatuko litzaidake... Nahi nuke... Ez nuke nahiko... Nik neuk...

-(e)lako... -(e)nez (gero).. Bait-... Kontuan hartuta... -t(z)eagatik/earren... -(r)i esker... dela medio/kausa/bide... Bistakoa denez... Honegatik/horregatik/hargatik...

2-Baieztatu/Ezeztatu/Zalantzan jarri

Ziur... Jakina... Noski baietz... Egia borobila... Bistakoa da... Dudarik/zalantzarik gabe... Ez dago zalantzarik... Eztabaida ezina da... Behar-beharrezkoa da... Konturatzen naiz... Onartzen dut... Ulertzen dut... ...-z konbentziturik nago

Ezinezkoa da... Gezurra galanta... Hori diona oker dago... Sekula halakorik... Ez nago batere ados... Hori ez da egia... Onartezina da...

Ez dakit ba... Beharbada... Agian... Ez dut argi ikusten... Hori ez da guztiz zuzena... Ez nuke esango... Izan liteke, baina... Badirudi, baina... Zaila da sinestea...

3-Kontrajarri/Kontrastatu/Ñabardunak egin

Dena dela ere... Hala eta guztiz ere... Esanak esan... Edozein modutan... Hori horrela izanik ere... Zernahi gisaz (ere)... Nolanahi/edonola ere... Datorrena datorrela... Hori gora-behera...

Nahiz eta... -n arren... ba-... ere... Baina...

Kontuan hartu, baina... Kontuan izan behar da, bestetik... Ados, baina...

Kasu honetan, ordea... Horren aurka esan... Aurrekoaren kontrara...

Baldin eta... Beti ere... Kasu honetan...

4-Negoziatu/Konbentzitu

Nirekin bat etorriko zara... Ados bazeunde, gustatuko litzaidake... Hala nahi bazenu... Onartuko bazenu...

Gogorarazi nahi dizut... Zera uler dezazun gustatuko litzaidake... Utz iezadazu azaltzen... Zera ziurtatzen dizut... Egoeraz jabe zaitetz... Zure lekuan jarrita... Zu ni bazina, ulertuko zenuke... Ezin duzu zeure horretan jarraitu... Adostasunera heltzeko... Bion mesederako... Eskertuko nuke...

5-Harikaldu/Ondorioztatu/Bukaera eman

Ildo horretatik... Hari horri tiraka... -(r)i dagokionez... Jakin badakigu...

Beraz... Honela/horrela/hala... Esanak esan... Kontuan izanik... Honen/horren ondorioz/kausaz... Bada...

Ondorioz... Honela/horrela/hala...

Bukatze/amaitze... Amai dezadan esanez... Azkenik... Behin honaino iritsita...

(Taulako informazioaren iturri nagusia: ['Konbentzitzeko argudiatu' sekuentzia didaktikoa](#))

Balio etikoak - DBH 1

- *"Bestearen azalean"*. Besteen azalean jarri eta egoerak asmatuko ditugu. Oharkabean barneratzen joaten garen estereotipoekin jolastuko dugu, antzerkia eginez eta pixka bat exajeratuz. Bi-hiru taldetan banatuta egingo dugu rol-jolasa.

Talde bakoitzean aldiko pertsona bat irtengo da erdira, eta antzestu egingo du (taldekide batek bideoan graba dezake):

"Hitz egin neska batek bezala"


"Hitz egin mutil batek bezala"

"Kantatu neska batek bezala"

"Kantatu mutil batek bezala"

Nola hitz egiten dute mutilek? Eta nola neskek? Zer keinu, hitz, bolumen, tonu... erabilita? Zenbat espazio hartzen du bakoitzak? Hitanoa lotzen al duzue mutil/gizon izatearekin eta hitz egiteko modu batekin?

Jarduera egin ostean, bideo hau ikus daiteke eta komentatu: [Nesken modura.](#)



Gelan grabatutakoa ikusi eta guztiok batera hausnartu.

- *"Hitzen arrastoan"*. Testigantzen barrunbeak aztertuko ditugu, alderdi linguistikoa. Testua (ikus "Testua" atalean) gure herriko euskarari edo euskara

Balio etikoak - DBH 1

batuan ipiniko dugu. Testua pasarteetan bana daiteke, eta taldetxo bakoitzak zati bat har dezala.

Ondoren, ozenki irakurri daiteke. Irakurketarako Pako Eizagirreren azalpenak kontuan izan ditzakegu (Aittu.eus webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40).

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, burututako lana gelakideekin partekatzeko.

*Balio etikoak - DBH 1***4. Gai:** Emakumeak eta surfa. Gaur egun.<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-eta-surfa>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there are navigation buttons: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Emakumeak eta surfa'. Below the heading is a video player with a play button and the title 'Emakumeak eta surfa'. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Herritartasunerako Hezkuntza, Balio etikoak
- Gaiak:** Genero-berdintasunaren aldeko

Below the metadata box, there are five yellow stars and the text '5 puntu 5 izarreko maximotik' and 'Iritzi 1 guztira'.

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak eta ikasleen aurre-ezagutzak aktibatu, gisa honetako galderak eginez talde handian:

- Zer emakume surflari ezagutzen dituzue? Eta gizonezkoak?
- Zuen ustez, zergatik dute emakumeek ikusgarritasun gutxiago surfean?
- Eta beste kirol batzuetan? (futbola, txirrindularitza, saskibaloia, eskubaloia...)
- Aipa itzazue kirolean nabarmendu diren emakumeak eta gizonezkoak. Bi zerrenda osa daitezke arbelean.

Balio etikoak - DBH 1

Bideoan Zarauzko bi surf-irakasleren azalpenak entzungo ditugu; [Emakumeak surflari](#) proiektua ipini zuten martxan, emakumeen jardunari bultzada eta ikusgarritasuna emateko.

**Baieztapen hauek egia ala gezurra dira? Zergatik?**

- Gurasoek interes handiagoa dute semeek kirola egin dezaten alabek baino.
- Gurasoek uste dutenez neskek etorkizunean ezingo direla kirolek bizi, itxaropen gutxiago dute haiengan.
- Mutikoekin fisikoki aktiboki partze hartzea eskatzen duten jolasetan aritzen dira helduak (baloiarekin, korrika...). Neskekin, berriz, gutxiago.
- Mutilei neskei baino lehiakorragoak izaten erakusten diete, umetatik.
- Badaude “mutilen kirol” eta “nesken kirol” bezala ikusten diren kirolak.
- Normalean mutilek ez dute dantza egin nahi izaten, eta neskek ez dute futboleko jokatu nahi izaten.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu (adib.: *QS, Junior, Projunior...*).

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

Balio etikoak - DBH 1

- Surfean gero eta emakume gehiago dabil, baina lehiaketetan neska gutxi hartzen dute parte. Zergatik? Nola eman buelta horri?
- Zer iruditzen zaizue neskei diru-sari txikiagoak ematea eta haiek leku okerragoetan lehiatzea?
- Ezagutzen al zenuten "Emakumeak surflari" proiektua? Eta emakumeak kirola egitera animatzea helburu duten antzeko beste proiekturik? (adibiderako, Arabako emakumeak saskibaloian eta Oñatiko Abixaran taldea)?

[Emakumeak surflari](#) proiektuan, besteak beste, surf-ikastaroak eta bidaiak antolatzen dituzte emakumeentzat.

3. Emakume kirolari gehienek ezin dute bizimodua kirol-jardunetik atera. Ikus [eskubaloari buruzko ETBko bideo hau](#). Ba al du antzekotasunik surfaren munduan gertatzen denarekin?

Kontrapuntu moduan, Irati Anda eskalatzailearen [testigantza](#) ikus daiteke; hark dioenez, kirol batzuetan aldaketa positiboak izan dira azken urteetan, eta eskalada da horietako bat.

Alpinismoan, adibidez, Euskal Herrian badaukagu mundu mailan ezaguna bihurtu den kirolari bat: Edurne Pasaban. Hori bai, emakumeak bakarkako kiroletan

Balio etikoak - DBH 1

errazago nabarmentzen ei dira taldeko kiroletan baino. Zer iruditzen zaizue zuei? Zergatik izan daiteke?



Irudia: Edurne Pasaban espedizioko taldekide batzuekin.

4. Punta-puntako emakume surflari asko modelo ere badira. Kirola sexualizatu egiten da. Jantzkerari erreparatuko diogu. Sexistak al dira kirol-arropak?

Hainbat kiroletan neskentzat arropa estu-txikiak diseinatu zituzten, emakumeen kirola “erakargarriagoa” egiteko (futbol amerikarrean bikinian jokatzen dutenak ere badaude: [Bikini Football](#)). 2012tik hona kirol gehienetan emakumeak libre dira nahi bezala janzteko (ez guztietan), baina kanon estetiko batzuk gailentzen dira. Gaiari buruzko informazioa bilatuko dute ikasleek (adibiderako, [artikulu bat](#)). Ondoren, iritzi-trukea egingo dugu.



Irudia: “Bikini Football” futbol amerikarreko talde bat.


Balio etikoak - DBH 1

Gaia ez da kirolera mugatzen, noski. Hona hemen galdera batzuk, eztabaidarako:

- "Nahi dudan moduan janzten naiz, askea naizelako". Norberak aukeratua izatea nahikoa arrazoi al da sexista ez izateko?
- Hondartzako bainujantziak sexistak al dira? Moda sexista al da? Zergatik?

5. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordezko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Historia egiten"*. Ikasleak ikerlari bihurtuko dira. Emakume kirolariak izango dira ikergaia. Ikasle bakoitzak (binaka ere egin daiteke) kirolean aitzindaria izan den emakume bat aukeratuko du, eta hari buruzko lantxoia egingo du, gero ikaskideekin partekatzeko.



-Nor zen/da (biografia) eta zer lortu zuen/du (ibilbide profesionala)

-Zergatik aukeratu duten

Ikertutako emakume guztien argazkiekin eta datuekin collage handi bat egin daiteke, eta ikastetxeko korridoretan ipini. Hasieratik erabaki aukeratutako emakumeak Euskal Herrikoak izango diren ala mundu mailakoak, elkarlanak batasuna izan dezan.

Balio etikoak - DBH 1

[Irudia](#): Maialen Chourraut

Beste aukera bat emakumeek kirolean izan duten ibilbidea aztertzea izan daiteke: kirol batean, olinpiar jokoetan... Kirol-talde baten historia ere iker daiteke.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Emakume kirolari bat elkarrizketatzea da proposamena. Emakume-talde bateko entrenatzailea ere izan daiteke. Galderak gelan prestatuko dituzte, denek elkarrekin, eta gero lana binaka egin. Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoz grabatuko dituzte —bideokamera edo sakelakoa erabilita—, gero gelakideei erakusteko. Aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte: izena, nongoa den, ibilbide profesionala...

Grabazio guztiekin bideo-muntaia egin dezakete, [OpenShot](#) programarekin, elkarlanean. Nola erabili erakutsiko zaie. Bideo hori ikastetxean eta herrian zabaldu daiteke. Posible da grabazioak [ahotsak.eus](#) ahozko ondarearen artxibora bideratzea ere (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

Balio etikoak - DBH 1


Adibiderako, ikus bideo hauek: [5 emakume](#), [Markina-Xemeingo emakume kirolariak](#) eta [Hernaniko emakume kirolariak](#).



[Irudia](#): Tolosaldeko bost kirolari gazte.

- *"Gaur egunera begira"*. Emakumeak kirol-prentsaren % 5ean bakarrik agertzen dira; gizonak, berriz, % 95ean. Emakumeak Olinpiar Jokoetan edo goi mailako lehiaketaren bat irabazten dutenean soilik agertzen dira komunikabideetan; gizonezkoen taldeak, berriz, emaitza txarrekin ere bai. Azken urtean eta hilabeteetan emakume kirolariei prentsan eman zaien tokia aztertuko dugu, talde txikietan.

Taldetxo bakoitzak egunkari bat eta denbora-tarte bat hartu ditzake, gaur egun egoera nolakoa den ikusteko. Ideiak jasotzeko, ikus [Emakunderen gida hau](#) eta Eusko Jaurlaritzaren [jkerketa hau](#) (2013-2014).



Balio etikoak - DBH 1

Beste aukera bat: emakumeen kirolari buruzko elkarrizketak eta iritziak aurkitzea eta aztertzea. Elkarrizketa eta iritzi-artikulu interesgarriak, adibide moduan: [Segurtasun falta](#) eta [Motxila astuna](#).


Egindako lana gelakideei aurkeztuko diete.

- 6. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren jardueren emaitza ezagutarazteko.

Balio etikoak - DBH 1

5. *Gaia:* Idazlea emakumea denean. Gaur egun.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/idazlea-emakumea-denean>



Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egin: emakumeak euskal literaturan. Ikasleen aurrezazagutzak aktibatuzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:



Zer ikusten duzue hemen? (ez erakutsi bi argazkiak batera)



1

Balio etikoak - DBH 1

1- Harkaitz Cano, Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria eta Anjel Lertxundi.

2- Karmele Jaio, Toti Mtz de Lezea, Mariasun Landa eta Arantxa Urretabizkaia.

- Zer euskal idazle dira zuen gustukoak? Esan izenak.
- Egin dezagun zerrenda bat ezagutzen ditugun emakume idazleekin.
- Ezagutzen dituzue Karmele Jaio, Uxue Alberdi, Kattalin Miner eta Danele Sarriguren? Eta Marijo Olaziregi literatura-kritikaria?
- Zuen ustez, emakumeek jasaten al dute diskriminaziorik euskal literaturan? Gizonezkoen baldintza beretan egiten dute literatura? Berdin epaitzen dira haien lanak? Arrazoitu.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentziona eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apunta ditzatela. Adibidez, *UEU* (Udako Euskal

Balio etikoak - DBH 1

Unibertsitatea), *Sautrela* (literaturari buruzko telebista-saioa), *Erasmus literaturaren polemika, misoginia...*

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iritzi duzue kontatu dutenari buruz? Espero zenuten halako testigantzarik?
- Egia al da literaturan gizonetzkoa neutroa dela eta emakumea markatua? Eta beste esparru batzuetan? (musikagintzan, antzerkian, telebistan...)
- Emakumea idazlearen aurretik jartzea: eder agertu beharra (begiak, irribarrea... nabarmentzea). Gizonetzkoak serioago agertzen al dira argazkietan? (Interneten argazkiak begiratu)
- Gizonetzko idazleei ez diete galdetzen ea zergatik aukeratu duten gizonetzko pertsonaia eta ezta ea idatzi dutena autobiografikoa ote den ere. Emakumeei, berriz, bai. Zergatik izan daiteke?
- Neska gazteok jarrera berezirik (paternalismoa, gaintik jartzea, zuen lanaren balioa zalantzan jartzea...) sumatzen al duzue zuen bizitzetan?
- Gizonetzkoek erabakitzen dute zeintzuk diren "gai unibertsalak" eta zeintzuk ez. Ados zaudete horrekin? Adibidez, futbola gai unibertsala al da?
- Egia al da emakumeentzat zailagoa dela euren lana balioan jartzea? Kanpoan baloratzen hasten direnean, errazagoa al da etxean baloratzea? Ikus Marijo Olaziregiren [testigantza](#).

Balio etikoak - DBH 1

Erraiak liburuaren harira Danele Sarriugarteri egindako elkarrizketak aipatzen dituzte bideoan (adibiderako, [Sautrelako saioa](#)). Bestalde, "Erasmus literatura" kontzeptua ere aipatzen du Sarriugartek. Literatura-kritikariek idazle gazteen belaunaldi bati ipinitako etiketa bat da (ikus [Iban Zalduaren artikulua](#)), bereziki neska gazteei egotzi zitzaiena. Literatura-kritikari gutxi dira emakumeak.

3. Eider Rodriguez idazleak bost emakume idazle elkarrizketatu zituen *Idazleen gorputzak* (2019, Susa) saiakera-liburua idazteko. Aukera bat: liburua irakurri, eta iritzi-trukea egitea. Taldetxotan banatu, eta talde bakoitzak idazle bati dagokion zatia irakur dezake, eta gero informazioa partekatu. [Hemen](#) dago osorik.
4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
 - *"Hitzen arrastoan"*. Emakume idazle batzuen lanak aztertuko ditugu. Bakarka edo binaka egiteko ariketa izan daiteke.

Zer egin behar da? Liburua edo ipuina irakurri eta aztertu. Batetik, ohiko literatura-azterketa egin daiteke eta, horretarako, taula hau baliagarria gerta dakieke:

Gaia: zeri buruzkoa da?

Lekua eta garaia: non, noiz... gertatzen da?

Denbora: orainaldian ala lehenaldian?

Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?

Pertsonaia(k): izaera, ezaugarriak...

Narratzailea: 1. pertsonan, 2. pertsonan ala 3. pertsonan? Orojakilea, protagonista ala lekukoa?


Estiloa: sotila ala barrokoa? Esaldi laburrak ala luzeak? Nolako hitzak darabiltza?

Hori bai, genero-ikuspegiari arreta berezia eskainiko diogu, besteak beste, gertaerei eta pertsonaien jarrerei:

Balio etikoak - DBH 1

- Zer leku dute emakumeek istorioan?
- Sexuari lotutako genero-rolak eta genero-estereotiporik agertzen al da?
- Generoari dagozkion zer balio bultzatzen ditu?
- Eredu berriak eta anitzak agertzen al dira?

Hona hemen azter daitezkeen liburuen adibide batzuk (ikasleek beste liburu batzuk proposa ditzakete, noski):



Egindako lana ikaskideekin partekatuko dute, ozenki emandako azalpenen bidez. Lanei buruzko iritzia ere emango dute: ea gustatu zaien eta zergatik.

Beste ariketa bat, hauxe izan daiteke: liburu horiei buruzko kritikak irakurri, eta ados dauden ala ez eztabaidatzea.

- *"Sormena lagun"*. Ipuin bat idatziko du ikasle bakoitzak, eta ilustratu. Ipuinak genero-berdintasuna sustatuko du, genero-rol eta estereotipoak baztertuta. Binaka ere egin daiteke: batek testua eta besteak marrazkiak, bien artean biak... nahieran. Ilustrazioak modu askotakoak izan daitezke (ez dago ondo marrazten jakin beharrik): marrazkiak, argazkiak, collagea...

Nolakoak izan daitezke ipuinak? Adibide moduan, hona hemen hezkidetzeta eta

Balio etikoak - DBH 1

genero-berdintasuna sustatzen duten [ipuin batzuk](#). Lehenengo lana hauxe izan daiteke: pertsona/bikote bakoitzak ipuin bat aukeratuko du, eta, irakurtzeaz gainera, marrazkietan ere fijatuko da, ideiak hartzeko.

Ikus [Idazketa-tailer baterako aholkuak](#) bideoa eta proposamenak ('Jolasten' eta 'Sormena lagun' atalak bereziki), ikasleen sormena aktibatzekeo beharra izanez gero.

Ipuina sortzeko, nahi badute eskema klasikoa erabil dezakete:

- **Hasiera:** pertsonaia batzuk, leku bat eta egoera bat deskribatu
- **Korapiloa:** arazo bat, gertaera batzuk azaldu
- **Bukaera:** istorioa ixteko modu bat (ez du amaiera alaia izan beharrik)

Ipuina idatzitakoan, ozenki irakurriko dute. Horretarako, erritmoa, tonua, isiluneak, begirada... kontuan izango dituzte. Garrantzitsua da testua ondo ezagutzea, barneratzea. Testuan bertan markatu ditzakete isiluneak eta tonu-aldaketak. Ikusi Yolanda Arrietak bere idazketa-tailerretan darabiltzan bide-lerroak: [Irakurketa ozenerako jarraibideak](#) (01:55-04:25). Eta baita Pako Eizagirrenen azalpenak ere ([Aittu.eus](#) webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40).

Ikasle bakoitzak zer irakurriko duen erabakitakoan, tonua eta erritmoa erabakiko du, probak eginez: zer tonutan irakurri (umorezkoa, serioa, lasaia...), pertsonaien ahotsak nolakoak izango diren, non egin geldialdiak, zer hitz nabarmendu... Sortutako ipuina ozenki irakurtzeko, hauek hartuko dituzte kontuan ikasleek:

- **Gorputz-adierazpena:** arnasa hartu eta noizbehinka begirada paperetik jaso publikoari begiratzeko; irribarre egin...
- **Tonua:** umorezkoa, tristea, misteriozkoa...
- **Erritmoa:** bizia, motela, aldakorra, isiluneak... Probak egin, eta nola irakurri erabaki.
- **Ahotsa:** pertsonaien izaeraren arabera, nolakoak izango den pentsatu.

Balio etikoak - DBH 1

Ozenki irakurriko dute ikaskideen aurrean. Eta izan dituzten sentrazioen berri eman dezakete:

Gustura sentitu zara? Eroso, deseroso? Urduri, lasai? Disfrutatzen, bukatzeko irrikitan? Beldurrik piztu al zaizu? (Gaizki egiteko beldurra, barregarri geratzekoa...)

Gustura geratu ez badira, hobeto prestatu, eta berriz irakur dezakete (adibidez, bakarrik egonda, eta grabatu).

Irakurketa grabatu egin daiteke (momentuan bertan edo ondoren), eta horrekin hainbat lanketa egin daitezke. Bi aukera:

1-Audio-ipuina: edizio-programaren bat erabiliz ahotsari musika eta soinuak gehitzea.

2-Bideo-ipuina: edizio-programaren bat erabiliz ipuina bideo bihurtzea, marrazkiak/irudiak, soinuak eta musika ipinita. Adibiderako, ikus Aittu.eus webguneko ipuinak.

Emaitza ikastetxean eta sare sozialen bidez zabaldu daiteke.

- *"Gaur egunera begira"*. Aurreko proposamenean genero-berdintasuna bultzatzen duten ipuinak izan ditugu aintzat, baina badira kontrakoa eragiten dutenak ere: genero-rolak eta estereotipoak sustatzen dituztenak, alegia, ia beti oharkabean. Hona hemen [adibide bat](#).

Irungo Eguzkitza eskolan liburutegian dituzten 400 liburu aztertu dituzte, haur literaturan genero-ikuspegia zaintzen den ala ez jakiteko (ikus [horri buruzko artikulua](#)). Hona hemen ondorioetako batzuk:

Balio etikoak - DBH 1

- Neska/emakume protagonistak askoz gutxiago dira mutilak baino (% 29,3).
- Sarritan mutilen ekintzek neskenek baino garrantzia handiagoa dute narrazioan.
- Mutil protagonistek mugimendu handia dute, eta egoera ezberdinei aurre egiteko gai dira. Neskek, ordea, askotan laguntza behar dute: autonomia eta erabakitze gaitasuna falta zaizkie.
- Deskripzioetan aldeak nabarmenak dira: neskatoak txukunak, garbiak eta antolatua dira gehienetan eta edertasunari garrantzi handia ematen zaio.
- Emakumeak ez dira langile moduan agertzen eta, hala agertzen direnean, lanbide feminizatuetan ageri dira batik bat (irakasle, erizain...).
- Familia- eta jatorri-aniztasun urria dago orokorrean.
- Kolore arrosa neskei eta urdina mutilei lotuta agertzen dira, liburu-azaletan, marketineko estrategia moduan.

Balio etikoak - DBH 1

Ikasleen lana hauxe izango da: genero-berdintasuna bultzatzen ez duen haur edo gazte literaturako liburu bat aukeratu eta aztertzea, ondorioak ikaskideekin partekatzeko. Fitxa bana osatu dezakete.

- Liburuaren izenburua eta egilea
- Zer kontatzen du?
- Nor da/dira protagonistak?
- Nolakoak dira pertsonaiak?
- Zer egiten dute pertsonaiek?
- Nolakoak dira marrazkiak?
- Zergatik diot ez duela genero-berdintasuna bultzatzen?

Ikasle bakoitzak egindako lana ikaskideekin partekatuko du, eta iritziz-trukea egingo dute.

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere.

*Balio etikoak - DBH 1***6. Gaia: Emakumeak bertsoen plazan.** Gaur egun.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-bertsoen-plazan>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Emakumeak bertsoan'. Below it, a video player is embedded with the title 'Emakumeak bertsoen plazan'. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaiak:** Genero berdintasuna,

Below the metadata box, there are five stars and the text '0 puntu 5 izarreko maximitik' and '0 iritzi guztira'.

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egin: emakumeak bertsolaritzan. Ikasleen aurre-ezagutzak aktibatu, gisa honetako galderak eginez talde handian:

- Zeintzuk dira zuen gustuko bertsolariak? Bota izenak.
- Egin dezagun zerrenda bat ezagutzen ditugun emakume bertsolariekin.
- Ezagutzen dituzue Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Amaia Agirre eta Miren Artetxe? Zer dakizue haiei buruz?
- Zuen ustez, emakumeek jasaten al dute diskriminaziorik bertsotan? Gizonezkoen baldintza beretan jarduten dute? Berdin epaitzen dira haien bertsoak? Arrazoitu.

*Balio etikoak - DBH 1***Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentziona eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu ditzatela. Adibidez, *femme fatal* terminoa, *Kontrako eztarritik* liburua (Uxue Alberdiren saiakera-liburua) ...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Ezerk harritu al zaituzte? Zer nabarmenduko zenuketete? Zer sentipen eragin dizkizue?
- "Merezimendu-faltaren mamua" aipatzen du Nereak: kopuruz gutxiago izanik neskek bidea errazago duten ustea. Literaturan ere gertatu izan da neska gazteak plazaratu direnean haien lanen balioa zalantzan jarri izan dutela. Epai injustua al da ala badauka funtsik?
- Neska ala mutil izateak baldintzatzen al du zuen bizitza? Eta "neska gazte polita" izateak?
- Diskrezioa janzeran, emakumearen formak difuminatzeko eta mezua kontuan har dadin... diskrezioa norberak aukeratua izan daiteke, ala kanpotik eskatua: neskei diskretuagoak izatea eskatzen al zaie orokorrean?

Balio etikoak - DBH 1

- Plazara ateratzeko eta protagonismoa hartzeko beldur handiagoa ei dute neskek. Barregarri geratzeko beldur handiagoa. Zuek ere bai? Zergatik?
- Autoexijentzia eta autozentsura handiagoa: ondo egin beharra. Neska ala mutila izan, berdin espero al dute nota onak ateratzea? Zeinek dauka hanka sartzeko eskubide handiagoa?
- Umorea. Gela honetan mutilak neskek baino graziosoagoak al dira? Zeintzuk dira gelako graziosoak?
- Zuen ustez gure gizarteak lehiara garamatza? Emakumeak beren artean lehiatzera eta elkarri enbidia izatera?
- Ehiza, perretxikoak, futbola, txirrindularitza eta pilota gai unibertsalak al dira zuentzat?

Emakumeek bertsolaritzan izandako muga gehiago ezagutzeko, irakurri Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak idatzitako *Kontrako eztarritik* (Susa, 2019) saiakera-liburua ([hemen](#) osorik). Umoreari buruz, berriz, Ane Labaka bertsolari eta sortzailearen *Algara mutilatuak* (Susa, 2021) liburua interesgarria da ([hemen](#) osorik).

3. Uxue Alberdiren bideo hau ere oso gomendagarria da (eduki aldetik ez ezik baita jendaurrean jarduteko moduarengatik ere, ahozkotasunari dagokionez): [Bertsolaritza Feminista](#). Bideoa ikusi eta iritzi-trukea egin.


Balio etikoak - DBH 1

Bertsozale elkartean genero-berdintasunaz egin zuten bideoa ikustea ere interesgarria gerta daiteke, beste ikuspuntu batzuk ezagutzeko: [Testigantzak genero-berdintasunaz](#).

4. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Eman imitzia"*. Ahalduz Bertso Eskola sortu zuten neska/emakume bertsolariek, esperientziak partekatu eta beste eredu batzuk sortzeko (Nerearen [testigantza hau](#) eta Amaiaeren [bideo-pasarte hau](#) ikus daitezke). Azken urteetan bertso-saio feministak ere ugartu egin dira eta lehiaketa bat ere jarri dute abian: *Señora sariketa*.

Genero-berdintasuna bultzatzen duten bertsoak aurkitzea izango da ikasleen lana. Bertsoa.eus webgunea izan daiteke horretarako toki aproposetako bat; hona hemen bideoak ikusi eta bertsoak bilatzeko lotura posible batzuk:

- 
- [Señora sariketa](#)
 - **Orainmenean: genealogia feministak** saioak (adibiderako [Donostia](#) eta [Bilbo](#))
 - **Ez da kasualitatea** saioak (adibiderako [Atarrabia](#) eta [Ondarroa](#))

Balio etikoak - DBH 1

[Irudia](#): "Ez da kasualitatea" bertso-saio bat.

Behin bertsoa edo bertso-sorta aukeratuta (ez dauka bideoa izan beharrik; idatziz jasotako bertsoek ere balio dute), gelakideekin partekatuko dute, ahozko aurkezpen txiki bat eginez. Nahi izanez gero, gidalerro hauek segitu ditzakete:

- Aukeratutako bertsoari buruzko informazioa: norena den, zeri buruzkoa
- Bertsoa kantatu/errezitatu edo bideoa ipini
- Bertsoari buruzko iritzia eman
- Iritzi-trukea egin

- *"Sormena lagun"*. Bertsolari bihurtu eta bertsoak asmatzeko garaia da. Gaia ikasleek beraiek erabakiko dute. Bertsoak sortzeko [arbel digitala](#) erabil dezakete (izena eman behar da) eta doinua aukeratzeko, berriz, [doinutegia](#).

Bakarka edo binaka egiteko ariketa izango da. Ahal dela, umorea erabiltzea komeniko litzateke. Behin prestatu ostean, gela osoaren aurrean aurkeztuko

Balio etikoak - DBH 1

dute egindako lana, kantatuz, rapeatuz, antzetzuz edo ozenki irakurriz. Ondoren, nola sentitu diren galdetuko zaie, ea eroso aritu diren ala ez.



Irudia: Bortzirietako bertso eskolako gazteak bertsoan.

- *"Bestearen azalean"*. Besteen azalean jarri eta egoerak asmatuko dituzte, rol-jokoen bidez enpatia lantzeko, 3-4 laguneko taldeetan banatuta.

Bideoan aipatutako egoerak izan daitezke, bertso-mundukoak, edo ikasleek asmatutakoak, euren bizipenetan oinarrituta. Bide-lerro posibleak:

- Istoriotxoaren/anedkotaren nondik norakoak erabaki
- Pertsonaien izaera eta jarrerak zehaztu
- Gidoitxoa pentsatu: gertaerak eta elkarrizketak (naturalena egiten zaien erregistroa erabiliz, euskara batuan ala euskalkian).
- Rolak banatu
- Entseatu
- Ikaskideen aurrean antzetzu

Antzezlantxoa prestatzeko, 20 minutuko tarte emango zaie, gehiegi ere ez, izan ere, inprobisazioari tarte uztea ere polita da.

Balio etikoak - DBH 1

Jarduerarekin hasi aurretik, antzetzeko garaian kontuan har ditzaketen puntu batzuk aipatzea komenigarria izan daiteke:

- **Gorputz-adierazpena:** ahotsa bezain inportantea da. Begiradak, keinuak, espazioaren erabilera, arnasa...
- **Tonua:** umorezkoa, tristea, ziurra, urduria...
- **Erritmoa:** bizia, motela, aldakorra, isiluneak...
- **Pertsonaien izaera:** ahotsak, keinuak, mugimendua
- **Hizkuntza-baliabideak:** onomatopeiak, esamoldeak, hizkera...

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da.

*Balio etikoak - DBH 1***7. Gai:** Matxismoa ezkutuan? Adibide batzuk. Gaur egun.<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/matxismoa-ezkutuan>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Matxismoa ezkutuan?' with a blue arrow pointing to it. Below the heading is a video player showing a young man and woman. To the right of the video is a metadata box with the following information:

- Mailak: DBH
- Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Balio etikoak
- Gaiak: Genero berdintasuna
- 0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egin: eguneroko bizitzan eragiten diguten ohitura eta jarrera sexistei buruzko bideo bat ikusiko dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuzko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Berdintasunean bizi al gara? Parekidetasuna ikusten al duzue gizartean? Zer eremutan?
- Neskak eta mutilok berdin jokatzeko al duzue, adibidez, parranda giroan?
- Berdin janzten al zarete? Zer diozue nesken/mutilen modari buruz?
- Bururatzen al zaizue genero aldetik baldintzatzen zaituztetan aurreiritzi, rol aedo estereotiporik? Bota ba!
- Zer da "sexismoa"? Zertan desberdintzen da matxismotik? Lotuta al daude? Eta zer da "mikromatxismoa"?

Balio etikoak - DBH 1



Irudia: [Gucci](#)

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan har ditzatela, eta ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Bat al zatozte bideoan esan dituzten gauzekin?
- Zuen ustez, ilea kaskamotz jartzen duena edo beti txandalean dabilena berdin hartzen al da neska ala mutila izan?
- Argaltasuna eta gizentasuna berdin neurtzen al dira nesken eta mutilen kasuetan? Eta edertasuna?
- Egia al da emakumeen arropak gero eta txikiagoak direla? Arazorik izan al duzue arropa erostera joan izan zaretenean?

Balio etikoak - DBH 1

- Edertasun kanonen gurpilean ez sartzea zaila dela diote Saiokak eta Rinak, ia ezinezkoa. Ereduak erreproduzitzen ditugula, nahi gabe ere. Zer iritzi duzue zuek?
- Mutila noiz etorriko zain egotea ohikoa al da gaur egun ere? Iniziatiba mutilak hartzea, mutila neskarengana joatea "keinu erromantikoa" iruditzen al zaizue? Zergatik?
- Neskek zaintzaile papera errazago hartzen dutela ere badiote bideoan, eta eskatu ere egiten zaiela, lagun ona izateko baldintza moduan. Ados zaudete?
- Mutil askorekin ibili den neska oso kritikatu izaten da. Orain ere bai?
- Zer iritzi duzue izebergaren metaforari buruz?

Mutil moduan sozializatua izateak zer suposatzen duen azaltzen du [bideo-pasarte honetan](#) Iñigo Etxezarretak.

Ur handitan saioko bideo hau ere ikus daiteke: [Mikromatxismoak](#).

3. Pablo Vidalek egindako [ikerketaren arabera](#), nerabeek zailtasunak dituzte publizitateko sexismoa hautemateko. Zortzi ikastetxetan egin zuen galdeketa, 15 eta 16 urteko DBHko 500 ikasleri. Hona hemen ikerlanaren ondorio nagusiak:

Balio etikoak - DBH 1

- Sexismoa lehenaldiko zerbait bezala ikusten dute nerabeek, berdintasunean oinarritutako oraingo gizarteari ez dagokion zerbait. Baina era berean, bere egiten dituzte publizitateak, duela 40 urte bezala, hedatutako emakumeen estereotipo eta aurreiritzi ugari.
- Gazte gehienak (% 66) ez dira jabetzen publizitatean erabiltzen den lengoaiaren manipulazioaz. Esplizituki iraingarriak edo agresiboak ez diren mikromatxismoak onartu egiten dituzte, ez dituzte sexistatzat jotzen: "Publizitatean ikusten dena errealitatean ere gertatzen da. Horrelakoa da publizitatea", diote erantzunetan.
- Ezberdintasun handiak daude nesken eta mutilen artean. Mutilen gehiengo batentzat onargarria, normala eta justifikagarria dena, gaitzesgarria, desegokia edo matxista da neska askorentzat. Sexismoa onartzea naturaltzat ikusten dute mutilen % 70ek eta nesken % 30ek, gizartearen ohiko eta berezko zerbait bezala ikusten dute emakumeak modu sexistan aurkeztea.

Ikerlanean erabili zituzten hiru irudi:



Irudien iturria: [Nerabeek ez dute publizitateko sexismoa hautematen - Zientzia Kaiara](#)

Balio etikoak - DBH 1

Kolonia iragarkiak aipatzen ditu Saioak bideoan. Ikus ditzagun eta komentatu Paco Rabannen bi iragarki hauek: [1](#) eta [2](#). [Beste iragarki hau](#) ere ikus daiteke.

- Iragarki sexistak iruditzen al zaizkizue? Zergatik?
- Emakumea objektu sexual bezala agertzen al da?
- Hautematen al dugu publizitateko sexismoa?
- Ohituta al gaude leku guztietan emakumeak erdi biluzik ikustera eta

Jantzi ditzagun “betaurreko moreak”, gure ingurua hobeto ikusteko eta, ondoren, matxismo-egoerak identifikatzeko eta ekiditeko.

4. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkari bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *“Bestearen azalean”*. Antzerkia egingo dugu. Gizontasuna eta emakumetasuna antzeztuko ditugu. Hitzik gabe eta mugimendurik gabe: estatua bat edo argazki bat bagina bezalaxe.


Bi taldetan banatuko gara. Talde batekoek antzeztu egingo dute eta besteak publikoa izango dira, eta, ondoren, alderantziz.

Balio etikoak - DBH 1

Lehenengo ariketa, berotzen hasteko:

- Gorpuztu emakume bat
- Gorpuztu gizonetzko bat
- Batetik bestera pasatu: orain emakumea, orain gizona

Zer ezaugarri dituzte? Gorputz-atalen jarrera, aurpegiaren espresioa... Zer transmititzen du estatua bakoitzak? Segurtasuna, gogortasuna, ahultasuna... Denen artean ondorioak atera.



Bigarren ariketa: emakumetasun edo gizontasun rolekin lotu ditzakegun hitz edo kontzeptuak pentsatu, eta antzeztea; besteek (publikoak) asmatu egin beharko dute. Adibideak: ama talde bat, gizon-taldea txikiteoan, familia eredugarri bat, emakume feministak, gizonak gimnasioan, pasarelako modelook, basamutilak...

Antzerki esketxak egin ostean, agertu denari buruz hitz egingo dugu:

- Zer rol eta estereotipo agertu dira?
- Zer ezaugarri ditu genero bakoitzak? (ahultasuna, indarra, agresibitatea, lotsa/ausardia, irribarrea/seriotasuna...)
- Eta zer keinu/jarrera darabiltzagu? (hankak gurutzatuta, hankak zabalik, ipurdia kanporantz aterata, paparra puztuta...)
- Erraza al da hitzik gabe, gorputzarekin bakarrik, gizon-emakume rolak antzeztea?

Balio etikoak - DBH 1

Bukatzeko, kontrakoa egiten saia gaitzke: estereotipoak hausten eta egungo errealitateko beste eredu batzuk antzetzten (aita umezainak, eliteko kirolean dabilzan emakumeak, baleta egiten duten mutilak...). Erraza al da? Zer zailtasun ditugu?



[Irudia](#): ballet dantzaria

- *"Sormena lagun"*. Argazkilaritza izango da gure tresna jarduera honetarako. Gizonezkoak sarri mozarrotzen dira emakumez, baina alderantziz gutxitan. Gainera, hori gertatzen denean, ohikoa da estereotipoetara jo eta emakumeak barregarri uztea (titi handiak, ipurdia bistan, etab). Interneten ere emakumeen poseak imitatzen dituzten gizonezkoen argazki ugari aurkituko ditugu, baina oso gutxi alderantziz. Izan ere, emakumeen parodia egitea barregarritzat eta dibertigarritzat hartzen da; kontrakoa, berriz, ez.

Lan honen helburua ondo pasatzea da, eta, aldi berean, hausnarketa bultzatzea: zer da barregarria eta zer ez? Nork erabakitzen du hori? Zeren arabera? Irauli ditzagun eskemak!

Lehenengo, bilaketa egingo dugu sarean: emakumeak gizonezkoak imitatzen eta gizonezkoak emakumeak imitatzen. Zer eredu agertzen dira? Adibiderako, argazki [hauek](#) edo beste [hauek](#) ikus daitezke eta komentatu: barregarriak al dira? Komentatu beste [hauek](#) ere.

Balio etikoak - DBH 1

Irudiak: @BrosBeingBasic

Ondoren, gure txanda izango da. Parodiatu ditzagun gizonen jarrerak (garagardozele tripontziak, borrokalaria, gizon gogorrak, gaizto aurpegia jartzen dutenak, arreta erakartzeko tontakeriak egiten dituztenak, gizontasuna erakusteko arrautzak ikutzen dituztenak...). Hainbat aukera daude:

- a) Sarean aurkitutako argazkiak imitatzea, adibidez, gizonetzko pertsonaia famatuenak (esaterako, Rambo). Bi argazkiak elkarren ondoan ipini daitezke gero.
- b) Guk asmatutako jarrerak izan daitezke, gizarteko ereduak eta estereotipoak kontuan hartuta. Gelako mutilek mutilen roletan posatu dezakete; ondoren, neskek imitatu egingo dituzte eta bi argazkiak elkarren ondoan ipini daitezke gero. Talde argazkiak ere izan daitezke.

Jarduera hau binaka edo taldeka egin daiteke. Bikote edo talde bakoitzak egindako lana erakutsiko du, eta gelakideei azalduko die zer egin duen, aurkezpen txiki bat eginez.

Aukeratutako argazkiekin argazki erakusketa ere antolatu dezakegu ikastetxean (ikasleenak eta Internetetik ateratakoak).

Balio etikoak - DBH 1

- *"Jolasten"*. Jostailuak eta jolasak, berdinak al dira neskenak eta mutilenak? Pentsatu erosi aurretik bideoa ikusi eta gelan komentatu. Ondoren, begiratu ingurura, bakoitzaren herrira. Arreta jarri publizitatean eta baita gertuko umeengan ere. Argazkiak atera, propaganda-aldizkariak gelara eraman... Aldaketa positiboak nabarmendu, genero-bereizketarik gabeko jolas eta jostailuak.

Collagea egin daiteke, jasotako argazkiekin eta marrazkiak eginez. Aukera bat: jarduera eredugarriak eta eredugarriak ez direnak konparatzea. Gabon inguruan eta taldeka egiteko jarduera izan daiteke. Ondoren, ikastetxeko pasabideetan jar daitezke, denek ikusteko moduan.



5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere, eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko.

*Balio etikoak - DBH 1***8. Gaia: Ohiturak aldatzen: Eskoriatzako kasua.** Gaur egun.<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/santa-ageda-eskoriatzan-nesken-partehartzea>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Materiala** Euskalkitegia

Santa Ageda Eskoriatzan: nesken parte-hartzea

...batean, Santa Agedan mutilak bakarrik irteten ziren kantu-eskean eta dantzan. Denborarekin, neskek ere parte hartzen hasi ziren. Hori... gertatu zen kontatzen dute bideo honetan. 2008. urtean neskek mutilekin batera irteten dira plazara dantzara.

Nesken parte-hartzea Santa Agedan

Ver más ta... Compartir

Materialak: DBH, LH

Proiektuak: Eskoriatzako Udalak babestuta

Ikasgaiak: Herritartasunerako Hezkuntza, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagueria

4,50 puntu 5 izarreko maximotoik

2 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik**1.** Aurre-ezagutzak aktibatzeneko galderak egin daitezke, talde handian:

- Zer dakizue Santa Agedako kantu-eskeari buruz? Badakizue nola eta noiz sortu zen?
- Zer da tradizioa? Tradizioei eustea garrantzitsua al da? Zergatik?
- Badira eztabaidak eta ezinikusiak sortzen dituzten tradizioak, emakumeek ezin dutelako parte hartu: desfileak, dantzak, danborradak... Ezagutzen duzue halako kasurik? Kontatu dakizuena.

*Balio etikoak - DBH 1***Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu (Eskoriatzan mendebaldeko euskalkian hitz egiten dute: ikus [Debagoieneko euskararen ezaugarriak](#)).

Bideoa ikusi ondoren

1. Gogoetarako bidea ematen duten galderak egin daitezke, talde handian:

- Zer iruditzen zaizue neskek Eskoriatzako Santa Agedako dantzetan parte hartzea? Ohiturak eguneratzea, gaurkotzea, beharrezkoa al da?
- Neskek zergatik ez zuten Santa Agedako kantu-eskean eta dantzetan parte hartzen?
- Zuen ustez, parte hartzen hasteko prozesua gatazkatsua izan al da? Erraza al da ohiturak aldatzea? Ausardia behar al da? Egingo al zenukete zuek horrelako zerbait? Begi onez ikusiko zenituzkete aldaketak?
- Ezagutzen al duzue horrelako aldaketak egin dituzten beste tokirik? Eta lortu ez dutenik?

Balio etikoak - DBH 1

2. Badaude aldaketak egiteko adostasunik lortu ez duten herriak ere, eta egindako aldaketek mina eta haserrea eragin dutenak ere bai. Hondarribiko eta Irungo alardeen kasuak dira beharbada ezagunenak. [Alardearen seme-alabak](#) dokumentala ikus daiteke (Jone Karres eta Eneko Olasagasti, 2013) eta Arantxa Urretabizkaiaren *Bidean ikasia* (1993-2016) liburuak irakurri (joan liburuaren [aurkezpen bideora](#); [pasarte honetan](#), berriz, liburuari buruz egin dizkieten kritikak azaltzen ditu).

Ondoren, iritzi-trukea egin daiteke, talde txikietan jarrita. Zeintzuk dira batzuen eta besteen argudioak? Zergatik gaitotu da hainbeste egoera? Zer-nolako sentipenak eragiten dizkigu?



[Irudia](#): Hondarribiko alardea.

Hausnarketarako, baliagarria gerta daiteke Valentziako bi kasu hauek ere ezagutzea:

- [Alcoiko 'Mairuak eta kristauak' festa](#). Badauka antzekotasunik alardearekin, bataila baten irudikapena delako eta gizonen/emakumeen rola oso finkatuta daudelako. Emakumeek 2017an lortu zuten lehen aldiz gizonekin batera parte hartzea, legeak hala aginduta ([albistea](#)).

Balio etikoak - DBH 1



Irudia: Alcoiko Mairuak eta Kristauak.

- Elcheko Misterioa. Gizonezkoek eta mutikoek bakarrik hartzen dute parte, oraindik orain. Alkateak dio ez dela jarrera matxista, 500 urteko tradizioa mantentzea baizik: ikus albistea. Aipagarria da Oñatiko Corpuseko prozesioan (gutxienez 1470etik egiten da) ere sasoi batean aingeruak mutikoak zirela, eta ileordeak zeramatzatela; gaur egun ez.



Irudia: Elcheko Misterioa.

Balio etikoak - DBH 1

- 3. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke, talde txikietan. Bost adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- *“Eman iritzia”*. Bertso sorta bat edo bakarrizketa labur bat prestatu, gaia honakoa izanik: *“80 urteko aitona-amonak zarete, senar-emazteak, eta harrituta geratu zarete herriko festetan neskek dantzan ikusi dituzuenean”*. Iritzia emango dute, txandaka (bertsoka), elkarrizketa moduko bat osatuz. Kontuan izan lehenaldia eta oraina, biak bizi izan dituztela.



Bertsoak sortzeko arbel digitala erabil dezakegu (izena eman behar da) eta doinua aukeratzeko, berriz, [doinutegia](#).

Binaka egiteko ariketa da. Ahal dela, umorea erabiltzea komeniko litzateke. Behin prestatu ostean, gela osoaren aurrean aurkeztuko dute egindako lana, kantatuz, rapeatuz, antzeztuz edo ozenki irakurriz.

Balio etikoak - DBH 1

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Kazetari lanetan jardungo dute ikasleek. Elkarrizketa bat egitea izango da helburua. 2-3 laguneko taldetxoetan egin dezakete.

- **Zer jaso.** Herrian (eskualdean edo inguruko herri batean ere izan daiteke) egon diren aldaketak, emakumeen parte-hartzearekin lotuta. Herriko ohituretan, aisialdian, ikastaroetan... parte-hartzea nola aldatu den. Ahal dela, elkarrizketa euskaraz izatea komeni da (bide batez euskara ere lantzeko).

- **Nor elkarrizketatu?** Adibideak:

- Emakumezko dantzariak, ohituraz mutilenak ziren dantzetan dabiltzanak
- Emakumeentzako ikastaro/taillerretako antolatzaileak/parte-hartzaileak/formatzaileak
- Aldaketa-prozesu bateko sustatzaileak (ez daukate derrigorrez emakumezkoak izan beharrik: gizonezkoak ere eragile izan daitezke, adibidez, dantza taldeetan).
- Aldaketa-prozesu baten lekukoak. Adineko emakumeak izan daitezke, gaztetan beren aisialdia nolakoa zen eta gaur egungoarekin zer ezberdintasun dituen kontatuko dutenak.



Irudia: Badihardugu Elkartea

Balio etikoak - DBH 1

- **Nola jaso?** Nor elkarrizketatu erabaki eta elkarrizketa lotutakoan, galdetegia prestatu: galderen zerrenda. Inprobisazioari tarte bat uztea ere garrantzitsua da: elkarrizketan bertan galdera berriak sor daitezke, elkarrizketatuak kontatzen duenaren arabera.

Elkarrizketa bideoan grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke grabazio horrekin:

1-Bideo-erreportaje labur bat prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi eta adibideak eman; adibidez, ([OpenShot](#) edo [VirtualDub](#)). Sarean zabaldu.

2-Elkarrizketa idatziz jarri, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpitulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina...)

Egindako lana gelakideei aurkeztea eta azalpenak ematea izango litzateke betiere azken pausua (elkarrizketatuaren biografia laburra, elkarrizketaren zergatia eta abar).

Ondo legoke grabazioak [Ahotsak.eus](#)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

- *"Historia egiten"*. Euskal Herriko dantzetan ipiniko dugu arreta: azken urteotan hainbat herritako dantzetan gertatu diren aldaketak aztertuko dituzte ikasleek, talde txikietan banatuta. Taldetxo bakoitzak kasu bat aztertu dezake, eta egindako ikerketatxoa ikaskideekin partekatu, ahozko aurkezpen baten bidez (*Prezzi* bezalako programaren bat erabilita, adibidez).

Hona hemen aztertu daitezkeen adibide batzuk (ikasleek beste batzuk ere proposatu ditzakete):

Balio etikoak - DBH 1

Tolosa	2013an neskak bordondantzari atera ziren lehendabizikoz (albistea).
Zumarraga	Antigua ermitako ezpata-dantzan 2015etik hartzen dute parte neskek, eta prozesua naturaltasunez egin zen (ikus albistea).
Durango	2015ean hasi ziren neskak dantzari-dantza egiten (Ixone Aroma dantzaria)
Otxandio	2017an emakumeen soka-dantza berreskuratu zuten (ikus albistea).
Luzaide	Bolant egunean 2017an hartu zuten parte emakumeek lehen aldiz, herrian galdeketa eginda (ikus albistea).
Lekeitio	Kaxarrankan emakumeak 2017an hasi ziren parte hartzen, arraunlari moduan (ikus albistea). Kaxa gaineko dantza ere egin izan dute, besteak beste, Argentinan 2018an (ikus albistea), lekeitiarren babesarekin.
Oñati	2018. urtean Corpuseko prozesioan neskek lehen aldiz egin zuten dantza (albistea Goienan). Oñatiko aldaketak Boisen (AEB) ere eragina izan zuen: 2019an hiru neskak hartu zuten parte (albistea).
Aduna	Axeri-dantza 2018tik da mixtoa (albistea).
Goizueta	Zahagi-dantzan 2019an hasi ziren parte hartzen neskak (albistea).
Berriz	2019an hasi ziren emakumeak ezpata-dantza egiten (albistea).
Lesaka	2019. urtean lehen aldiz emakumeek ere egin zuten zubigaineko ezpata-dantza (ikus albistea: 1 eta 2).
Markina-Xemein	Saragi-dantzan 2020. urtean estreinatu ziren neskak (albistea).
Eltziego	Lehen mutilena zen dantza bat berreskuratu zuen emakume talde batek, 40ko hamarkadan, eta emakumeen dantza bihurtu (artikulua).

Gaia testuinguru orokor batean kokatzeko, Oier Araolaza dantzari eta antropologo eibartarraren [elkarrizketa](#) hau interesgarria gerta liteke; [Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan](#) doktorego-tesia egin du Araolazak (2020).

Balio etikoak - DBH 1

1



2



3



4



5



6



Irudiak: 1. Aduna (Argazkia: [Tolosaldeko Ataria](#)). 2. Goizueta (Argazkia: [Unai Samsó, Dantzan.eus](#)). 3. Lekeitio (Argazkia: [Potxuak martxan, Dantzan.eus](#)). 4. Lesaka (Argazkia: [Andoni CANELLADA, Dantzan.eus](#)). 5. Tolosa (Argazkia: [Tolosaldeko Hitza, Dantzan.eus](#)). 6. Markina-Xemein (Argazkia: [Oier Araolaza, Dantzan.eus](#))

- *"Ika-mika"*. Eztabaida antolatuko dugu gelan, orain arte landutakoa koska bat estutuz. Hona hemen proposatzen ditugun gaiak, berdintasunaren inguruan eztabaidatzeko:

Balio etikoak - DBH 1

- a. Cadizko (Andaluzia) inauterietan **ninfak eta Jainkosa** izendatzen dituzte urtero. 2015ean Cadizko alkateak, genero-berdintasuna bermatzeko asmotan, inauterietako Jainkoaren figura sortzea proposatu zuen (ikus [albistea](#)). Asmo horrek kontrako iritziak ere ekarri zituen: [iritzietako bat](#), "festako erreginaren" figura bera zalantzan jartzen duena.
- b. **Olentzero eta Maridomingi**. Berdintasunaren izenean sortutako figura da Maridomingi. Beharrezkoa al da? Olentzeroren emaztea, maitalea edo laguntzailea baldin bada... rol hori mesederako ala kalterako da? Hona hemen horri buruzko [iritzi bat](#). Hiru errege magoen ordeztan, hiru erreginak egon beharko al liriateke?



Irudia: Olentzero eta Maridomingi. [Realjab](#)

Gela erdiak gai bat jorratuko du (Cadizkoa) eta beste erdiak bestea (Olentzero). Talde bakoitza bi taldetan banatuko da (guztira lau talde): alde batetik Inauterietako Jainkoaren edo Maridomingiren figura sortzearen aldekoak egongo dira, eta, bestetik, kontrakoak.

Eztabaida ahoz egingo da. Ikasleei eztabaida formalen ezaugarriak eta erabiltzen diren formulak eta testu-antolatzaileak zein diren azaltzea komeni da, erabil ditzaten (irakaslearentzat lagungarri gerta daitezke: [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak, eta [beste adibide hau](#)). Eztabaidarekin hasi aurretik, euren iritzia eta jarrera defendatzeko argudioak taldean pentsatu ditzakete

Balio etikoak - DBH 1

ikasleek. Helburua: nork bere iritzia defendatzeko argudioak izateaz gainera, gainerakoen iritzia ulertzea eta errespetatzea.

- *"Sormena lagun"*. Irudimena lantzeko ordua da. Mozorro-festa bat antolatuko dugu. Hori bai, ondo pentsatuko dugu nola mozorrotu: hausnarketa egin ostean, ikasleek proposatuko dituzte mozorroaren ezaugarriak, eta baita gaia ere (adibide bat: euskal superheroiak).



Hausnarketarako adibide batzuk:



Mozorroetako estereotipo matxistak: neskatilak printzesa, mutikoak superheroi, neska sexyak... Gai horri buruzko hiru artikulu: ["Mozorroak agerian uzten duena"](#), ["Mozorro sexistarik ez"](#) eta ["Ur botilak ere diferenteak"](#).



Irudiak: Pixabay

Balio etikoak - DBH 1

Mutilak neskaz janztea ohikoa da inauterietan. Barregarria al da? Iraingarria izan al daiteke? Zergatik eta noiz?

Aukera batzuk: mozorroarekin bat datorren abesti bat aukeratu, eta Lipdub bat egitea mozorro-festaren egunean. Antzerki-esketx txikiak ere egin daitezke taldeka.

- 4. **Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpen guztietan ahozko jarduna (aurkezpena, eztabaida, erakustaldia...) izango da bukaerako emaitza. Aurkezpenak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira bideokamerarekin. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarteak izango dira. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).

*Balio etikoak - DBH 1*9. *Gaia:* **LGTBIQ+ kolektiboa.** Gaur egun.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/lgtbiq-kolektiboa>

The screenshot shows the website interface with a rainbow background. The main heading is 'LGTBIQ+ kolektiboa'. Below it, there is a video player showing a woman speaking. To the right of the video is a metadata box with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0, Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Balio etikoak
Gaiak:	Bizikidetzatza
	0 puntu 5 izarreko maximotik
	0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egin: LGTBIQ+ kolektiboa. Aurre-ezagutzak aktibatzen, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Ba al dakizue LGTBIQ+ kolektiboaren hizki bakoitzaren esanahia?
- Badakizue hizki bakoitzaren atzean dagoena azaltzen? Letraz letra joan gaitzeko, errepaso azkar bat eginez.
- Zein da letra ezezagunena zuentzat? Zergatik?
- Zer da "queer" izatea?
- Ezagutzen al duzue kolektibokoa sentitzen den inor?
- Erraza al da "armairutik ateratzea" gaur egun?
- Igartzen al duzue jarrera homofoborik edo transfoborik inguruan?

2. Ekain Perrinori gertatutakoa ere komenta daiteke.

Bideoa ikusi aurretik, bideoan agertzen diren hiru adituei buruz hitz egin dezakegu. Kattalin Miner eta Iñigo Etxezarreta Eihera kooperatibako kideak dira eta ikastetxeetan formakuntzak ematen dituzte. Josebe Iturrioz ere aditua da LGTBIQ+ gaietan; telebistan ere agertzen da errealitate horiei buruz hizketan. Hirurak dira militante feministak, eta LGTBIQ+ kolektiboa mugimendu feministarekin lotzen dute.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apunta ditzatela. Adibidez, *homogeneo, heteronorma* edo *heteroarau, zis, hormona, transgenero, pertsona bitar, transitatze, hermafroditismo, enpirikoki, polisemia, subersibotasun, mainstream, hegemoniko...*

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

Balio etikoak - DBH 1

- "Heteroarauak suposatzen duen indarkeriarekin amaitzea" da LGTBIQ+ kolektiboaren helburua, Iñigoren arabera. Zer da heteroaraua, zuen ustez? Eta nola baldintzatzen du gure bizimodua?
- Kontzeptu guztiak argi geratu al zaizkizue? Zalantzarik piztu al zaizue? Denon artean argitzen saia gaitzke, berriro letraz letra joanda.
- Egia al da lesbianak ezkutuan geratzen direla, nahiz eta borroka guztietan parte hartu?
- Eta bisexualak inork ez dituela serio hartzen? Zergatik gerta daiteke hori?
- Ezagutzen al duzue pertsona transik? Gehiago jakiteko, bi neska transen esperientziei buruzko bideoa ikus daiteke (DBH-2rako prestatu duguna): [Trans izatea](#).
- Ezagutzen al duzue pertsona intersexualik? Agertzen al dira hedabideetan? Kattalinek dio intersexualitate dela letra ezezagunena, nahiz eta portzentajea aldetik dezente diren. Zer iruditzen zaizue?
- "Genero ez bitar" moduan agertzea -ez emakume ez gizon- erraza ikusten al duzue gure gizartean? Zer zailtasun izan ditzakegu horretarako? (komunak, aldagelak, mediku-sistema, lana aurkitzeko garaian, jendearen erreakzioa...)
- Ikusten al duzue aukerarik egunen batean mutil-neska sailkapena aldatu eta zabaltzeko?
- Zuen ustez, etiketak beharrezkoak al dira? Zergatik?
- Batzuek identifikatuago sentitzen dira "transmaribollo" izendapenarekin LGTBIQ+ siglekin baino. Zer iruditzen zaizue iraina aldarrikapen-tresna moduan erabiltzea?
- Kontrakorik esan ezean, pertsona guztiak heterosexuak direla pentsatu ohi dugu. Naturala eta ohikoa al da ingurukoei sexu-lehentasunaz galdetzea? Ala deserosoa da? Hauetako zer galdera erabiliko zenukete eta zergatik?

- "Zu heterosexuala/homosexuala al zara?"
- "Zu marika/bollera al zara?"
- "Zu lesbiana/gaya/bisexuala al zara?"
- "Zuri mutilak/neskak/mutilak eta neskek gustatzen al zaizkizu?"



LGTBIQ+ kolektiboaren aldeko lanetan dabilzan erakunde eta elkarteei buruzko informazioa bilatu. Zer egiten dute?

Badago termino bat bideoan azaltzen ez dena: pansexuala. Bisexuala eta pansexuala kontzeptuak antzekoak dira: zer desberdintasun dago bien artean? Joseberen [azalpena](#) ikus daiteke.

LGTBIQ+ kolektiboan errealitate asko batzen dira. Sexualitatea bizitzeko modua, genero-nortasuna, genero-adierazpena eta sexu-lehentasuna aipatzen ditu Iñigok bideoan. Hitz egin dezagun kontzeptu horiei buruz, askotan nahasgarriak gerta daitezke eta. Taula hau baliagarria gerta dakiguke.

KONTZEPTUAK ARGITZEN

- **Genero-nortasuna:** Ni X naiz. Emakumea, gizonezkoa edo genero ez bitarra (ez naiz ez gizon ez emakume sentitzen, ala biak batera). Jaiotzean ipini didaten sexuarekin bat etor daiteke (zis) ala ez (trans).
- **Sexu-orientazioa edo sexu-lehentasuna:** Niri X gustatzen zait. Heterosexuala, homosexuala, bisexuala, pansexuala... izan naiteke, nire harreman sexual-afektiboetan. Bizitzan zehar gustuz aldatzea ere gerta daiteke.
- **Sexu-adierazpena:** Ni X bezala agertzen/adierazten naiz. Neure burua erakusteko modua. Bi adibide: 1. Neska naiz, baina genero ez bitar bezala agertzea gustatzen zait, heteroaruari kontra egiteko diskurtso moduan. 2. Mutila naiz, eta neskendako diseinatutako arropak janztea gustatzen zait.
- **Praktika sexualak:** Nire intimitateko praktikak X dira. Zer-nolako harremanak ditut nire gorputzarekin eta beste gorputzekin, harreman sexual-afektiboetan.

3. Josebe Iturriozek “luma heterosexualak” aipatzen ditu. *“Heterosexualitatea antzerki hegemoniko bat da”*, dio. *“Antzeztu emakume bat”* edo *“antzeztu gizonezko bat”* esanez gero, denok jakingo genuke zer egin. Ala ez? Proba dezagun: gelako neskek mutilak imita ditzakete, eta mutilek neskek. Bi taldetan bana daitezke, eta elkarri begira jarri. Ea zer gertatzen den.

Balio etikoak - DBH 1

Mugimendu gutxiko antzezpenak izango dira, ia-ia estatuak bezala, eta soinu txikiak egingo dituzte, Josebek bideoan aipatutako "ai" horren parekoak.

Ondoren, azter ditzagun agertu diren ezaugarriak (bi zerrenda osa ditzakegu arbelean, Neskak eta Mutilak):

-Gorputz-adierazpena. Keinuak eta mugimenduak: eskuak (airean, poltsikoetan, zintzilik, genitaletan...), hankak (zabalik, elkartuta, gurutzatuta...), burua (tente, okertuta, makurtuta...), aurpegia (serio, irribarretsu, haserre, pozik...), beste gorputz atal batzuk (ipurdia kanporantz ala barrurantz, aldaka albo batera, paparra aterata...)

-Soinuak (sendoak, agudoak, bolumen handikoak, sotilak...)

-Transmititutako emozioak/jarrerak (indarra, ahultasuna, sumisioa, erakarpena, agresibitatea...)

Atera ondorioak, guztien artean. Esan al daiteke antzeztutako nesketako batzuk "lumadun neskak" direla? Antzeztutakoa bat al dator errealitatearekin? Nolakoak gara?

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Elkarrizketatu LGTB IQ+ kolektibokoa den norbait edo letra horietako batekin lot daitekeen pertsonaren bat. Kolektibo horren alde lanean dabilen militante bat izan daiteke, edo herritar xume bat. Beste aukera bat: errealitate horiei buruzko ezagutza eta onarpen-maila zenbatekoa den -eta

Balio etikoak - DBH 1

izan den- jakiteko elkarrizketak egitea; adibidez, adinekoei: euren gaztaroan homosexualitatea nola ikusten zen eta orain nola ikusten duten kontu dezakete.


Lana binaka egin dezakete. Elkarrizketatua nor izango den pentsatzea eta elkarrizketa lotzea izango da lehenengo lana. Ondoren, galdetegia prestatuko dute. Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoz grabatuko dituzte — bideokamera edo sakelakoa erabilia—, gero gelakideei erakusteko; hona hemen grabazioak egiteko kontuan har ditzaketen [jarraibide orokorrak](#).

Lana amaitutakoan, aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, bideo-pasarte batzuk erakutsiz, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte: izena, adina, nongoa den, nolatan aukeratu duten...

Grabazio guztien artean pasarte egokienak aukeratu eta bideo-muntaia egin daiteke, [OpenShot](#) bezalako programaren batekin, elkarlanean. Nola erabili erakutsiko zaie. Bideo hori ikastetxean eta herrian zabaldu daiteke. Posible da grabazioak gero [ahotsak.eus](#) proiektura bideratzea ere.

- *"Gaur egunera begira"*. Zer jakin nahiko genuke LGTBQ+ kolektiboaren inguruan? Ezezagunenak egiten zaizkigun errealitateak ikertuko ditugu, gaur egungo egoera (eta azken urteetakoak). Banaka edo binaka egiteko lana izan daiteke, eta Internet-a ezinbesteko tresna izango da horretarako.

Hona hemen beste gai batzuk:



Balio etikoak - DBH 1

Bi lan-ildo proposatzen ditugu, aukeran:

-**Zer da?** Definizioak, azalpenak, irudiak, adibideak... Esate baterako: 'Zer da intersexualitatea?'

-**Kasuak**, errealitate horien adibide diren pertsonen esperientziak azaldu. Hona hemen adibide batzuk: [Susannah Temko](#) emakume intersexuala, [Camino Baró](#) emakume intersexuala, [Hanne Gaby Odiele](#) modelo intersexuala, [Gabriel Jose Martin](#) intersexual gay-a, [Lera aktibista intersexuala](#), [Conchita Wurst](#) drag queen abeslaria, [Samantha Hudson](#) queer artista...



Irudia: [Samantha Hudson](#)

Ikasleek egindako ikerlanaren ahozko aurkezpena egingo dute, 5-10 minutukoa. Horretarako, egoki iritzitako baliabideak erabiliko dituzte: ikus-entzunezkoak, ppt-ak, argazkiak, marrazkiak, antzerkia...

Balio etikoak - DBH 1

- *"Bestearen azalean"*. Gizon eta emakume moduan sozializatzen gaituzte: nola jantzi, nola ibili, nola hitz egin, nola begiratu... erakusten digute, egokitu zaigun generoaren arabera. Ariketa performatibo bat egitea proposatzen dugu: Drag Queen-King tailerra. Maskulinitate- eta feminitate-rol hegemonikoen arabera "mozorrotzea", baina ez beste generoaren parodia egiteko eta haren kontura barre egiteko (inauterietan mutil askok egiten duten bezala). Helburua hauxe izango da: benetan bestearen azalean jarrita zer sentitzen den jakitea.



Irudia: beautybyjosiek

Irudia: [Leland Bobbé](#)

Balio etikoak - DBH 1

Josebe Iturriozek Drag King tailerrak eman izan ditu. Genero-ikuspegia lantzeko eta emakumeak ahalduntzeko balio dezakete halako tailerrek. Hona hemen berak emandako azalpenak:

- [Drag King ikastaroak ematen](#)
- [Drag King ikastaroetan maskulinitatea lantzen](#)

Drag King eta Drag Queen izatea zer den probatu nahi duten boluntarioak eskatuko ditugu. Guztira lau taldetan banatuko da gela (Drag King eta Drag Queen kopurua parekoa izatea komeniko litzateke):

1. **Drag Kingak:** gizonen jantziko direnak
2. **Drag Queenak:** emakumeen jantziko direnak
3. Drag King tailerraren arduradunak (jantziko den pertsona bakoitzeko arduradun bat egon daiteke)
4. Drag Queen tailerraren arduradunak (pertsona bakoitzeko bat)

Hurrengo pausoa Drag King eta Drag Queen bihurtzeko pausoak ezagutzea izango da. Hainbat bideo daude Interneten, azalpenekin: nola makilatu, nola jantzi, zer osagarri erabili... Modu profesionalean egiten saiatuko gara, ahalik eta sinesgarriena izan dadin.

Aukera bat Drag Queenak eta Drag Kingak aparte egotea da, talde bakoitzak bere prozesua egin dezan eta, elkar ikustean, sorpresa handiagoa izan dadin. Egun batean Drag King tailerra eta hurrengo batean Drag Queenena egin daiteke (hori izan liteke aukera onena transformazioa ikasle guztiek edo gehienek egin nahiko balute edo denbora aldetik mugatuta egonez gero).

Balio etikoak - DBH 1

Eta ondoren zer? Proposamen batzuk:

-**Laborategia 1:** Itxura-aldaketa. Aurretik arropa, ileordeak, osagarriak eta makilajea lortu. Tailer bakoitzeko arduradunek itxura-aldaketa egiten lagunduko diete ikaskideei.

-**Laborategia 2:** Nola ibili, nola mugitu, nola hitz egin, zer keinu egin... esperimentatu!

-**Erakustaldia:** Taldeka oholtzara igo eta karaokea edo play-back-a egin. Onena bakarka irtetea izango litzateke, bakoitzak abesti bat aukeratuta (lotsatienek bikoteka egin dezakete).

-**Argazki-saioa:** Aurretik, bitartean eta, batez ere, ondoren, gerora ere eraldaketaz jabetzeko. Argazkiak ateratzea arduradunen lana izan daiteke.

Oso garrantzitsua da bukaeran prozesuari buruz hitz egitea eta esperientzia-trukea egitea.

Ausartenentzat beste proposamen bat ere badaukagu: kalera irtetea, espazio horretan, beste rol batetik bizita, zer sentitzen den jakiteko. Adibidez, supermerkatua joatea edo herriko kale nagusian paseatzea. Ea nola sentitzen diren, ea jendearen begiradak eta jarrerak nolakoak diren... Ziur asko esperientzia desberdina izango da neskentzat eta mutilentzat, desberdin sozializatu izan direlako. Gomendioak:

a) Bakoitzak bere pertsonaia serio hartzea (parodia baztertzea; helburua ez da inori graziaz egitea).

b) Neskak talde txikietan irtetea kalera (2-3 pertsona, taldearen babesa sentitzeko), eta mutilak bakarka (taldean badaude oso posible da festa-giro maskulinizatua piztea, inauterietan gertatu ohi den legez, eta ez da hori interesatzen zaiguna).

5. Ekoizpena partekatzea. Ahozko aurkezpena edo emanaldia egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak ezagutarazteko.

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, espazio itxietarako unean uneko osasun-neurri guztiak errespetatuta (COVID-19). Espazioa antolatzeko orduan, gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeko aukera bera dutela eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo ziurtatuko da. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzea.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek euren esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotuko dugu: mahai eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrean eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili)... Kontuan izan behar dugu transmisioa dela helburua, eta horretarako giro aproposa sortzea garrantzitsua dela. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dira, etxean bezala.

Ikasleek euren kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko, egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean oinarritutako proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.



Komeni denean, areto nagusia, liburutegia edo kanpoko eremuren bat ere erabili daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, antzezlanak edo jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).

DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zer jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia didaktiko bihur daitezke. Fitxa pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero (azken ekoizpen bat aukeratuta), lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

- 1. saioa.* Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikusi
- 2. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere hasi gaitzke jardurekin)
- 3. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk
- 4. saioa.* Ikerketa, informazio bilketa edo lanketa, ekoizpena sortzeko (kasuan kasu, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke)
- 5. saioa.* Ekoizpena partekatu eta grabatu
- 6. saioa.* Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Interneteko konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek euren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.
- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak, etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

MATERIALAREN EGILEAK

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkartek sortuko du, www.ahotsak.eus proiektua oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenez arduratu da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. 2009tik dabil Badihardugun lanean. Elkartek Hezkuntza arloan dituen proiektuen eta Ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0) aurreko urteetan ere. Kazetari eta iritzi-artikulugile moduan ere aritua da (Euskaldunon Egunkaria, Berria, Goiena).
- **AINTZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetan aholkulari pedagogikoaren ardura izango du. Edukien transkripzioekin eta proposamen pedagogikoekin lagunduko du. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da eta Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren sortzaileetako bat. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratuko da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikusentzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamerari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile moduan dihardu 2009tik. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.

Balio etikoak - DBH 1

- **IZASKUN GASTON BALERDI.** Beharrezko izapide administratiboak egiteaz gainera, gida didaktikoaren diseinu eta maketazioaz arduratzen da. Arte Ederretan Lizentziatua da. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) maketatzen eta diseinatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatu diogu, ahozkoitasunari eta ahozko genero-testuei dagokienean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHUn eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, eta baita Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoan ere. Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozkoitasuna lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

BIBLIOGRAFIA

- ALONSO, Idurre (2008). *Euskal Literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan*. EHU.
http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Idurre_Alonso_T_EI.pdf
- AMONARRIZ, Kike (2002). "Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran" in *IX-Jardunaldi pedagogikoak. Euskararen erabilera*. Donostia, EHIE: 417-465
- AMONARRIZ, Kike (2012). "Txisteeek euskaraz ez dute graziarik" in *Campus*. 79: 39. Leioa: EHU. https://issuu.com/upv-ehu/docs/campus_79_def_web/39
- ARAOLAZA, Oier (2020). *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan*. Doktore-tesia. Bilbo: UEU.
- BARQUIN, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.
- BASSOLS, Margargarida, TORRET, Anna M. (2003). *Modelos textuales teoría y práctica*. Bartzelona: Octaedro ediciones.
- BELTRAN, Elena, MAQUIEIRA, Virginia (2001). *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*. Madril: Alianza Editorial.
- BRONCKART, Jean-Paul (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Madril: Fundación infancia y aprendizaje.
- BULLEN, Margaret, EGIDO SIGÜENZA, José Antonio (2004). *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irún y Hondarribia*. Bilbo: EHU.
- De PIETRO, Jean-François, DOLZ, Joaquim (1997). "L'oral comme texte: comment construire un objet enseignable?" in *Education et recherches*. 1/1997: 335-339. Friburgo: Editions Universitaires Fribourg Suisse. <https://www.e-periodica.ch/digbib/view?pid=szb-001:1997:19::457#4>

Balio etikoak - DBH 1

- DIEZ MINTEGUI, Carmen (2003). *Tradiciones culturales y legitimización del poder masculino*. Bilbo: EHU.
http://www.ugr.es/~pwlac/G19_15Carmen_Diez_Mintegui.html
- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard. (1997). “Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona” in *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura*. 11: 77-98. Genova: Université de Genève.
- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard (1998). *Pour un enseignement de l’oral*. Paris: ESF.
- DOLZ, Joaquim, NOVERRAZ, Michèle, SCHNEUWLY, Bernard. (2001). *Séquences didactiques pour l’oral et pour l’écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3^e/4^e). Brusela: De Boeck.
- DOLZ, Joaquim, VILA, Montserrat (1997). “L’oral formal” in *Articles* 12. Bartzelona: Grao.
- EIZMENDI, Iñaki (2015). “Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena” in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91. Andoain: Sei.
- ESNAOLA, Imanol (2000). “Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa” in *HIK-HASI*. 49. Donostia: HIK HASI.
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezaroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa>
- ECHEVERRIA, Begoña (2001). “Privileging masculinity in the social construction of Basque identity” in *Nations and Nationalism*, 7(3). 339-363. Los Angeles: University of California.
https://38c3c988-8b73-491f-a929-fcca7c086139.filesusr.com/ugd/9bbd41_0fac911a1c384282be45a784b2530f0f.pdf
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

Balio etikoak - DBH 1

- EUSKO JAURLARITZA (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. 218. alearen gehigarria. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (1993). *Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua*. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guia_s2/eu_emakunde/adjuntos/guia.02.recursos.basicos.mujeres.eus.pdf.pdf
- FORT I MARRUGAT, Oriol (2015). *Cuando danza y genero comparten escenario*. Bilbo: EHU. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ausart/article/viewFile/14406/13129>
- GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2015). "Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 96: 011-028. Andoain: Sei.
https://www.academia.edu/20802637/Ahozko_euskara_ikerketarako_unibertso_bat
- GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2015). *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
<http://www.euskonews.com/0701zbk/gaia70103eu.html>
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2009). *Gipuzkoako lurralde historikoko jaietarako buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
<https://www.gipuzkoa.eus/documents/2556071/2587709/Jaiak+INFORME+eu.pdf>
- BERRITZEGUNE (2020). *Heziberri 2020*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- IBARRA, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: N.U.P.
- IDIAZABAL, Itziar. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- IDIAZABAL, Itziar, GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2007) *Ahozko euskara. Azterketa eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza>
- KAGAN, Spencer (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*. California: Kagan Publishing.

Balio etikoak - DBH 1

- MEDGYES, Peter. (2012). *Laughing Matters: Humour in the Language Classroom*. Cambridge: Handbooks for Language Teachers.
- NABERAN, Maialen. (2017) *Emakumeak eta kirola: badaude genero-estereotipoak Lehen Hezkuntzan?* Gasteiz: EHU - Hezkuntza eta Kirol fakultatea. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/25003/GrAL_Nabera%2CM.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- LEGORBURU, Onintza. (2018). [Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak](#). Gasteiz: EHU
- LLEDO, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Gasteiz: Emakunde.
- PAVON, Amaia, ZUBEROGOITIA, Aitor (2011). "Leintz bailarako nerabeak eta ikusentzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian" in *Uztaro*. 78: 31-49. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida*. I tomoa. Gasteiz: Emakunde. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guia_s2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak*. II tomoa. Gasteiz: Emakunde. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guia_s2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.02.instrumentos.elaboracion.proyecto.educativo.eus.pdf.pdf
- RINCON, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazioa guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Gasteiz: Emakunde.
- SANCHEZ CARRION, José María (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011). *Euskal Herriko Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketa 2011 EMAITZAK*. Euskal Herriko VI. neurketa. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/euskal-herriko-hizkuntza-erabileraren-kale-neurketa-2011-emaitzak-2/>

Balio etikoak - DBH 1

- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2013). “Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilerari buruzko datuak (LH4 eta DBH2)” in *Ikasleak hiztun. 2011ko ARRUE proiektua*. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/arrue-ikasleak-hiztun-2011/>
- VIZCARRA, María Teresa, MACAZAGA, Ana María, REKALDE, Itziar. (2009). *Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: Emakunde.
- ZALBIDE, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?* Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Donostia: Ikastolen Elkartea.
- ZENBAITEN ARTEAN (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Gasteiz: Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar.
- ZENBAITEN ARTEAN (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ZUAZO, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: ELKAR

Balio etikoak - DBH 1



Ikasmaterial honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren onespena dauka.

2021/10/21